



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

48c72f118a40683ce0f99e478f5064d6a66747152616818f43a812b69709984d

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO IRAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.09.29

Tolosako udaletxean, 2022ko irailaren hogeita bederatzian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Jose M. Villanueva Telleria (PSE-EE)

Boto-eskuordetza (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua):

Ander Figuerido Zubiria zinegotziak du Kristina Pelaez Errazquin andrearen boto-eskuordetza.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez



Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2022ko uztailaren 28ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Hasieraz onartzea Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.
3. Onartzea ofizioz berrikusteko prozedurari hasiera ematea, 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deuseztasun-erreklamazioari eta administrarien lau plaza hautatzeko prozesuari dagokienez.
4. Ixitako ekitaldiko fakturaren onarpena.
5. Hasierako onarpena ematea 2022ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 3-2022 proposamenari.
6. Hasieraz onartzea 2022-12 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa.
7. Berrestea 2022/2212 eta 2022/2240 Alkatetza Dekretuak: 566/2022 errekurtsu arruntean agertzea, eta abokatua eta prokuradorea izendatzea.
8. Onartzea CIDE CHC eta CIDE COR enprekin, hala adostuta, kontratuak suntsiaraztea.
9. Tolosako udalerrian jenderik gabeko etxebizitzak eraberritzeko dirulaguntzen bidez alokairu soziala bultzatzeko ordenantza arautzailea behin betiko onartu izanaren berri ematea.
10. Kreditu aldaketen berri ematea:
 - 2022/10 kreditu aldaketa, kreditu gehigarrien modalitatean.
 - 2022/11 kreditu aldaketa, kreditu gaikuntzaren modalitatean.
11. Galderak eta eskaerak.



Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. AKTA HAU ONARTZEA:
2022KO UZTAILAREN 28KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO UDALEAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Antolakuntza batzordeak aurkeztutako irizpena aztertu eta bozkatu aurretik, EAJ-PNV, EH-BILDU ETA PSE/EE udal taldeek adostutako emendakina aztertu dute Udalbatzako kideek:

TOLOSAKO UDALEAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI

EMENDAKIN PROOSAMENA

ZIOA

Tolosako Udalak 2021eko maiatzaren 27an onartutako Ordenantzaren aldaketa eta eguneraketa proposamenari beste aldaketa hauek proposatzen dizkiogu:

AURREKARIAK

Atal honetan honako paragrafo hau txertatuko da:

«Azkenik, bizikidetza unitateen osaera eta etxebizitza partekatuen berezitasunak ere kontutan izango dira dirulaguntzen banaketan.»

LAUGARRENA.- 2. artikulua. Eskatzaileen betekizunak d) atalean jasotako diru sarrera gordinen mugak aldatzen dira.

d) Diru-sarrerei lotutako baldintzak: bizikidetza unitateko diru-sarrera gordinen mugak honako hauek izango dira:



BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial	GAZTEAK (GAZTELAGUN programatik kanpo) JÓVENES fuera del programa GAZTELAGUN	GAINONTZEKOAK Resto
Eskatzaile indibiduala Solicitante individual	24.500 - 30.000 €	3.000 - 30.000 €
2 kideko familia-unitateak Familias de 2 miembros	30.000 - 35.000 €	3.000 - 35.000 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak Familias de 3 o 4 miembros	30.000 - 40.000€	3.000 - 40.000 €
Familia ugariak Familias numerosas	32.000 - 45.000 €	3.000 - 45.000 €

BOSGARRENA.- Errenten gehieneko kopuruaren egokitzapena.

4. artikulua. Baztertzeak.

b) Alokairu errentek, gehienez, 700,00 €-koak (eranskinak barne) izan beharko dute.

Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programan jasotako aldaketaren ondorioz, bizikidetza unitatearen osaera eta etxebizitza partekatuen berezitasunak kontutan izanda, Ordenantzan ere gehieneko errenta aldatuko da.

4. artikulua. Baztertzeak.

b) Alokairu errentek, gehienez, honako hauek izan beharko dute

BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial/	Alokairu errentaren gehienezko zenbatekoa
Eskatzaile indibiduala/Solicitante individual	750 €
2 kideko familia-unitateak / 2 bizikide Familias de 2 miembros / 2 convivientes	800 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak / 3 edo 4 bizikide Familias de 3 o 4 miembros / 3 o 4 convivientes	900 €
Familia ugariak / 5 bizikide edo gehiago Familias numerosas / 5 convivientes o más	1000 €



SEIGARRENA.- 7. artikulua: Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diru sarreraren tarreak ere egokitu egin dira, gehineko diru sarrerak kontutan hartuta:

DIRU-SARREREN TARTEAK	
Diru-sarrerak	Dirulaguntza
<15.000 €	Alokairuaren % 60
15.001 € - 21.000 €	Alokairuaren % 50
21.001 € - 30.000 €	Alokairuaren % 40
30.001 € - 37.000 €	Alokairuaren % 30
37.001 € - 45.000 €	Alokairuaren % 20

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du emendakina.

Ondoren, Udalbatzako kideek aztertu eta bozkatu dute Antolakuntzako Batzordeak 2022ko irailaren 21ean egindako bilkuran onartu zuen irizpena, aurretik ebatzi diren zuzenketekin aldatuta:

AURREKARIAK

Tolosako Udalak egoki deritzo 2021eko maiatzaren 27an onartutako Ordenantza egokitu eta eguneratzeari. Ordenantza horren bidez, etxebizitzak alokatzeko laguntzak ematea arautzen da, eta laguntza horiek aldatu eta eguneratu egin nahi dira, gazteei zuzendutako dirulaguntzak eguneratuz eta onuradun berriak sartuz.

2021ean onartu zen ordenantzaren azken helburua da Tolosan alokairu-erregimeneko etxebizitza bat lortzen laguntzea, eta gazteei eta egoera ahulean dauden beste kolektibo batzuei alokairuko merkatu librean sartzen laguntzea.



2022ko apirilaren 26an, Eusko Jurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren Agindua onartu zen, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak.

Gaztelagun Programa berriak hainbat aldaketa ditu, onuradunen kopurua handitzeko eta finkatzeko asmoz; hala, gehieneko errenta handitu egin da, diru-sarrera gordinen mugak, bai norbanakoentzat, bai familia unitateentzak, bai eta familia ugarientzat ere aldatu egin dira, besteren artean.

Laburbilduz, gazteen emantzipazio-tasa handitu nahi da, efizientzia eta erabilgarritasun frogatuko laguntza-programa bat finkatuta, eta programa egiturazko eta iraunkor bihurtuko da.

Horrenbestez, aldaketa hauek, ezinbestean, Tolosako Udalak 2021eko maitzaren 27an onartutako Ordenantzaren aldaketa eta eguneraketa dakarte, diru-sarrera gordinen mugak aldatu behar direlako alde batetik, eta alokairuaren geheineko errenta handitu, bestetik.

Bestalde, Udalak egokitzat jo du dirulaguntzen onuradunak zabaldu, eta berriak sartzea..

Azkenik, bizikidetza unitateen osaera eta etxebizitza partekatuen berezitasunak ere kontutan izango dira dirulaguntzen banaketan.

I. GAIAREN AZTERKETA

Aurrekoa gauzatu ahal izateko, Tolosako Udalak 2021eko maitzaren 27an onartutako Ordenantzan aldaketa hauek proposatzen da:

LEHENENGOA.- Zioen azalpenean aipatzen diren kolektiboa zabaltzea.

«ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea da Tolosako herrian etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, elkarrekiko lehiarik gabeko erregimenean eta Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez.

Azken helburutzat honako hauek dauzka:

Jarraian zehazten diren kolektiboei laguntza ekonomikoa ematea:

A) 18 eta 35 urte (azken hori barne) bitarteko adina duten gazteak.



B) Bananduak, dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxebizitza ezkontide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxebizitza bat alokatuko behar balute.»

Adierazi den moduan, Udalak onuradunak zabaltzea egokitzen jo du, berriak sartuz. Beraz, Proposatzen den aldaketaren arabera, honela geratuko litzateke:

Proposatzen den aldaketaren ondoren, honela jasoko litzateke zioen azalpena:

«ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea da Tolosako herrian etxebizitzaren alokairurako dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, elkarrekiko lehiarik gabeko erregimenean eta Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez.

Horiek horrela, Tolosako Udalak 2021eko maiatzaren 27an onartu zuen alokairua sustatzeko dirulaguntzen egokitzapen eta eguneratze bat egitea ontzat jo du, gazteei zuzendutako dirulaguntzak egokituz eta onuradun berriak gehituz.

Azken helburutzat honako hauek dauzka:

Jarraian zehazten diren kolektiboetako laguntza ekonomikoa ematea:

A) 18 eta 35 urte (hau barne) bitarteko adina duten gazteak, beti ere Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren GAZTELAGUN programatik kanpo geratuko balira.

B) Bananduak, dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxebizitza ezkontide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxebizitza bat alokatuko behar balute.

C) Alokairu erregimenean etxebizitza batean dauden 70 urtetik gorako pertsonak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

D) Alargunak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

E) Modu berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean (ikus "eskatzaileen betekizunak" atala).

F) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 bitarteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.

BIGARRENA.- Dirulaguntzaren xedean onuradun berriak aipatuko dira eta beste erakundeen programak ere aipatuko dira.



1.artikulua. Xedea.

Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea –partzialki– honako biztanle-talde hauei: 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, bananduak edo dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak alokairu-erregimeneko etxebizitza errentan hartuta daukatenean edo horretarako konpromisoa hartzen dutenean, dagokion deialdia aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Izatezko bikoteak edo ezkontideak bizikidetza-unitatetzat hartzen dira.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza eta onuradunak hamabi hilabeteen gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraikiz, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioeko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berriazko justifikaziorik aurkezten.

Aldaketaren ondorioz, lehenengo paragrafoan onuradun berriak aipatuko dira eta artikulua bukaeran bi paragrafo erantsiko dira:

I. XEDEA

1.artikulua. Xedea.

Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea –partzialki– honako biztanle-talde hauei: GAZTELAGUN programatik kanpo geratzen diren 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, bananduak edo dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak, alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 70 urtetik gorako pertsonak, alargunak, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatuta bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 bitarteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Izatezko bikoteak edo ezkontideak bizikidetza-unitatetzat hartzen dira.



Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza eta onuradunak hamabi hilabetean gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraikiz, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioeko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berriazko justifikaziorik aurkezten.

Beste erakunde batzuen programak.-

Eusko Jaurlaritzak onartu duen alokairurako laguntzak (Gaztelagun programa, 2022ko maiatzaren 6ko EHAA), udal laguntza hauek baino lehentasun hadiagoa izango du. Eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez (udal laguntzaren ebazpenaren aurretik) tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar hori salbuetsita egongo da, hain zuzen ere, udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inoiz ere Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Irizpide bera erabiliko da etxebizitzako laguntza osagarrien kasuan (Lanbide) eta Eskubide Subjektiboko Prestazioaren kasuan.

HIRUGARRENA.-

2. artikulua. Onuradunak.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan ahalko dira laguntzearako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar, **baldintza hauek betetzen** dituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak:

A) 18 eta 35 (azken hori barne) urte arteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean.

B) Bananduak, dibortziatuak (epai judizial irmoarekin), desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

Xedean jasotako onuradun berriak ere artikulua honetan gehituko dira:

2. artikulua. Onuradunak.

*Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan ahalko dira, laguntzearako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar **baldintza hauek betetzen** dituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak:*

A) 18 eta 35 urte (hau barne) arteko adina duten gazteak, beti ere Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren GAZTELAGUN programatik kanpo geratuko balira.



B) Bananduak, dibortziatuak (epai judizial irmoarekin), desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

C) Alokairu erregimenean etxebizitza batean dauden 70 urtetik gorako pertsonak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

D) Alargunak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

E) Modu berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean (ikus "eskatzaileen betekizunak" atala)

F) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 arteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.

LAUGARRENA.- 2. artikulua. Eskatzaileen betekizunak.d) atalean jasotako diru sarrera gordinen mugak aldatzen dira.

d) Diru-sarrerei lotutako baldintzak: bizikidetza unitateko diru-sarreraren mugak honako hauek izango dira:

Urteko diru-sarrera gordinak gutxienez 3.000 €-koak izango dira.

Onuradun bakarra baldin bada, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 28.000 €-ko kopurua.

Bi onuradun edo gehiago izanez gero, urteko diru-sarrera gordinek ezingo dute gainditu 35.000 €-ko zenbatekoa.

Gaztelagun programaren aldaketekin egokitu ondoren, horrela geldituko litzateke jasota ordenantzan:

d) Diru-sarrerei lotutako baldintzak: bizikidetza unitateko diru-sarrera gordinen mugak honako hauek izango dira:

BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial	GAZTEAK (GAZTELAGUN programatik kanpo) JÓVENES fuera del programa GAZTELAGUN	GAINONTZEKOAK Resto
Eskatzaile indibiduala Solicitante individual	24.500 - 30.000 €	3.000 - 30.000 €
2 kideko familia-unitateak Familias de 2 miembros	30.000 - 35.000 €	3.000 - 35.000 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak Familias de 3 o 4 miembros	30.000 - 40.000€	3.000 - 40.000 €
Familia ugariak Familias numerosas	32.000 - 45.000 €	3.000 - 45.000 €



BOSGARRENA.- Errenten gehieneko kopuruaren egokitzapena.

4. artikulua. Baztertzekak.

b) Alokairu errentek gehienez 700,00 €-koak (eranskinak barne) izan beharko dute.

Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programan jasotako aldaketaren ondorioz, bizikidetza unitatearen osaera eta etxebizitza partekatuen berezitasunak kontutan izanda, Ordenantzan ere gehieneko errenta aldatuko da.

BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial	Alokairu errentaren gehienezko zenbatekoa
Eskatzaile indibiduala/Solicitante individual	750 €
2 kideko familia-unitateak / 2 bizikide Familias de 2 miembros / 2 convivientes	800 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak / 3 edo 4 bizikide Familias de 3 o 4 miembros / 3 o 4 convivientes	900 €
Familia ugariak / 5 bizikide edo gehiago Familias numerosas / 5 convivientes o más	1000 €

SEIGARRENA.- 7. artikulua: Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diru sarreraren tarteak ere egokitu egin dira, gehieneko diru sarrerak kontutan hartuta:

DIRU-SARREREN TARTEAK	
Diru-sarrerak	Dirulaguntza
<15.000 €	Alokairuaren % 60
15.001 - 21.000 €	Alokairuaren % 50
21.001 - 30.000 €	Alokairuaren % 40
30.001 - 37.000 €	Alokairuaren % 30
37.001 - 45.000 €	Alokairuaren % 20



ZAZPIGARRENA.- 2021eko dirulaguntzen tramitazioan prozedura luzatu egin zen denboran, eta prozedura egokitzea proposatzen da behin-behineko ebazpena kenduz.

12. artikulua. Prozedura.

- Instrukzioa eta proposamena:

1. Udalaren barruan dagokion sailak egingo ditu Ordenantza honetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Eskabideak dagokion batzordean aztertu eta ebaluatuko dira, eta, irizpen bidez, ebazpen-proposamen bat egingo dio batzordeak organo eskudunari.

2. Behin-behineko ebazpenaren jakinarazpena egingo zaie interesdunei, Tolosako Udalaren iragarki-taularen eta webgunearen bidez, eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, hala badagokio, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da, eta bertan adierazi beharko da zein eskatzailerentzat proposatzen den dirulaguntza eta zenbatekoa.

- *Ebazpena:*

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, organo eskudunak amaiera emango dio prozedurari, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta prozeduran egiaztatuta utzi beharko dira ebazpenaren oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik badago.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik aurrera. Adierazitako epean ebazpenik ematen ez bada, horrek berekin ekarriko du aurkeztutako eskaera ezestea.

Aldaketaren ondoren honela geldituko litzateke jasota:

12. artikulua. Prozedura.

- Instrukzioa eta proposamena:

1. Tolosako Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Etxebizitza zerbitzuko teknikaria.

- Balioespen batzordea: Antolakuntza Batzordea.

- Ebazpena: Organo eskuduna.

2. Antolakuntza Batzordeari dagokio eskabideak baloratzea, saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta. Balorazio eta ebazpen-proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, hark onar ditzan.



- *Ebazpena:*

- 1. Ebazpen proposamena onetsi ondoren, organo eskudunak amaiera emango dio prozedurari, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta prozeduran egiaztatuta utzi beharko dira ebazpenaren oinarriak.*
- 2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik badago.*

ZORTZIGARRENA.- VII. ARAUTEGI APLIKAGARRIA.

15. artikulua. Arautegi aplikagarria

Laguntza horiek emateko eta onuradunaren eta dirulaguntza ematen duen erakundearen arteko harreman juridikoari dagokionez, oinarri hauek eta laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek izango dira dirulaguntza arautuko dutenak:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorra.
- Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Tolosako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra.

Indarrean sartu den agindu berria erantsi da.

15. artikulua. Arautegi aplikagarria

Laguntza horiek emateko eta onuradunaren eta dirulaguntza ematen duen erakundearen arteko harreman juridikoari dagokionez, bete beharrekoak dira oinarri hauek eta laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauak.

- *Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorra. Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.*
- *Tolosako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra.*
- *Agindua, 2022 apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren-alokairu laguntzak.*

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Oinarri hauen aldaketaren Hasierako onespena Udaltzari dagokio aipatu Legearen 22.2d) artikuluan araututakoaren arabera.



II. AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Tokiko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, 25.2.a apartatuan honako hau adierazten du:

«2.- Udalerriak eskumen propio gisa jardungo du beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legeriaren arabera, honako gai hauetan:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak arlo honetan neurriak ezartzen ditu; besteak beste, 17.1 apartatuak (**Udalerrien eskumen propioak**): “1.–Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 7) Etxebizitza plangintza, programazioa eta kudeaketa”.

Era berean, 14. apartatuak hau dio: “Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea”.

Azkenik 36. apartatuak hau dio: “Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea”.

2.–Oinarrien izaera eta tratamendu juridikoa

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a) artikulua udalerriari esleitzen dizkie erregelamenduak (eta beraz, kasu honetan oinarriak) egiteko eta haien burua antolatzeko ahalak, lurralde-izaerako administrazio publikoak diren aldetik eta dagozkien eskumenen esparruan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, VI. tituluaren legegintza-ekimenari eta erregelamenduak emateko ahalari buruzkoan, arauketa berri bat arautzen du, eta administrazioek legegintza-ekimenaren eta erregelamenduak egiteko ahalaren egikaritza hartara egokitu beharko dute. Hala, 129. artikuluan ezartzen du administrazioek printzipio hauen arabera jardungo dutela: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Lege horren 133. artikulua xedapen orokorretan herritarren prozesu partehartzailea arautzen du eta derrigorrezkotzat jotzen du hasierako jendaurreko prozesu hori.

Aurretiazko galdeketa hori egin da eta iradokizuna jaso ere bai. Hala ere, ez da kontutan hartu. Honako hau dio etxebizitzako teknikariak 2021eko maiatzaren 11n eginiko txostenak.

3.- Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak

-Toki-korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikulua eta hurrengoek udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, eta horien barruan, dirulaguntzak emateko ahalmena onartzen zaie. Bestalde, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak honako bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:



- a) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa
- b) Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua

Herri Administrazioen diru laguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikulua, dirulaguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatutako artikulua 3. atalak, oinarrien publizitatea arautzen du, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxieneko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

3. La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la subvención.

b) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

c) Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.

d) Procedimiento de concesión de la subvención.

e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.

f) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.

g) Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.

h) Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.

i) Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

j) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.

k) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.

l) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

m) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

n) Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.



-Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren arabera:

«Artículo 2. Concepto de subvención.

1. Se entiende por subvención, a los efectos de esta ley, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

- a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.
- b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.
- c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.»

-1955ko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. artikulua arabera:

«Se considerara subvención cualquier auxilio directo o indirecto, valorable económicamente, a expensas de las Entidades locales, que otorguen las Corporaciones, y, entre ellos, las becas, primas, premios y demás gastos de ayuda personal.»

Aurretzako izaeraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren beharra

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzak arautzen dituenak, honako hau dio 8.1. artikuluan:

«Artículo 8. Principios generales.

1. Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

2. Cuando los objetivos que se pretenden conseguir afecten al mercado, su orientación debe dirigirse a corregir fallos claramente identificados y sus efectos deben ser mínimamente distorsionadores.

3. La gestión de las subvenciones a que se refiere esta ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

- a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.



- b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.
- c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.”

Alde horretatik, Udalbatzak 2020-2022 urteetarako Tolosako udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen. Dirulaguntza lerro hori 2020ko abenduaren 18ko Batzarrean txertatu zen Plan horretan.

- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikulua:

Laguntza emateko prozedura elkarrekiko lehiarik gabekoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

Aipatutako Errege Dekretuak, hauxe dio 55. artikuluan:

«Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka-prozedura izango da, baina, aurrekoa gorabehera, diru-laguntzaren oinarri arautzaileek ez dute bete beharko aurkeztutako eskabideen artean lehentasun-ordena bat ezartzeko betekizuna, baldin eta deialdian ezarritako kreditua nahikoa bada, eta aurkezteko epea amaitu ondoren eskabideen kopurua kontuan hartuta».

Beraz, ez gaude norgehiagoka-prozedura baten aurrean, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdun guztiak izango baitira deitutako dirulaguntzen onuradunak, kontuan hartuta deialdirako dagoen kreditua nahikoa dela eskabide guztiei erantzuteko.

Kontuan hartu behar da dirulaguntza mota hauetan ez dela zehazten zer balorazio-irizpide bete behar diren aurkeztutako eskabideen artean lehentasunak ezartzeko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua oro har eskatzen duen bezala.

Beraz, alderdi hori zuzendu egin beharko litzateke zioen azalpenean.

4.- Oinarrien izapidetzea:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedaturikoa ikusirik, Arautegi honen izapidetzeak honako pauso hauek izango ditu:

- Hasierako onespina, Plenoari dagokiona, aipatutako Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.
- Informazio publikoa eta interesdunei entzuteko epea 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta arautegiaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikorako epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, behin betiko onartutzat emango da.



4.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, arautegi honen aldaketaren onespena udalbatza plenoaren eskumena da.

Ondorioak:

Ordenantzak jasotzen du azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorraren 17.3. artikulua ezartzen duen edukia.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

ALDEKO BOTOAK: Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Xales Iturbe, Jose Mari Villanueva; Ander Figuerido, Estitxu Kortejarena eta Garbiñe Marzol.

Beraz, AHO BATEZ, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

- **LEHENA.-** Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea. Zehazki honako artikulua hauei, honela idatzita gelditu daitezela:

Zioen azalpena:

«Ordenantza honen xedea da Tolosako herrian etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, elkarrekiko lehiarik gabeko erregimenean eta Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez.

Horiek horrela, Tolosako Udalak 2021eko maiatzaren 27an onartu zuen alokairua sustatzeko dirulaguntzen egokitzapen eta eguneratze bat egitea onartzen du, gazteei zuzendutako dirulaguntzak egokituz eta onuradun berriak gehituz.

Azken helburutzat honako hauek dauzka:

Jarraian zehazten diren kolektiboetarako laguntza ekonomikoa ematea:

A) 18 eta 35 urte (hau barne) bitarteko adina duten gazteak, beti ere Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren GAZTELAGUN programatik kanpo geratutakoak.

B) Bananduak, dibortziatuak, desagertutako izateko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.



Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxebizitza ezkontide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxebizitza bat alokatuko behar balute.

C) Alokairu erregimenean etxebizitza batean dauden 70 urtetik gorako pertsonak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

D) Alargunak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

E) Modu berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean (ikus "eskatzaileen betekizunak" atala)

F) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 bitarteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.»

1.artikulua. Xedea.

«Laguntza hauen helburua da ohiko bizilekurako etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea –partzialki– honako biztanle-talde hauei: GAZTELAGUN programatik kanpo geratzen diren 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, bananduak edo dibortziatuak, desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak, alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 70 urtetik gorako pertsonak, alargunak, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 bitarteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.

Etxebizitza partekatzen duten guztiak izan ahal izango dira onuradun, baldin eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetzaren unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Izatezko bikoteak edo ezkontideak bizikidetzaren unitate gisa hartzen dira.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza eta onuradunak hamabi hilabetean gutxienez ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraikiz, alokairutik edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

Beste erakunde batzuen programak.-

Eusko Jaurlaritzak onartu duen alokairurako laguntzak (Gaztelagun programa, 2022ko maiatzaren 6ko EHAA), udal laguntza hauek baino lehentasun hadiagoa izango du. Eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez (udal laguntzaren ebazpenaren aurretik) tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren



laguntza derrigorrez tramitatu behar hori salbuetsita egongo da, hain zuzen ere, udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inoiz ere Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak. Irizpide bera mantenduko da etxebizitzako laguntza osagarrien kasuan (Lanbide) eta Eskubide Subjektiboko Prestazioaren kasuan ere.»

2. artikulua. Onuradunak.

*«Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan ahalko dira, laguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean eta diruz lagunduko den epealdian zehar **baldintza hauek betetzen** dituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak:*

A) 18 eta 35 urte (hau barne) arteko adina duten gazteak, betiere Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren GAZTELAGUN programatik kanpo geratuko balira.

B) Bananduak, dibortziatuak (epai judizial irmoarekin) desagertutako izatezko bikoteak eta guraso bakarreko familiak.

C) Alokairu erregimenean etxebizitza batean dauden 70 urtetik gorako pertsonak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

D) Alargunak, beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean.

E) Modu berean, laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuek behar bezala justifikatutako egoeretan, etxebizitza tutelatu bat eskuratzeko duten pertsonak eta Udalak, egoera hori konpontzeko behar diren baliabideak ez dituen neurrian eta beti ere jabetzan etxebizitzarik ez duten bitartean (ikus "eskatzaileen betekizunak" atala)

F) Mugikortasun urria duten pertsonak (7 eta 15 arteko puntuak), bai eta desgaitasun absolutua duten pertsonak ere.»

Bigarrenko artikuluko D) atala:

d) Diru-sarrerei lotutako baldintzak: bizikidetzak unitateko diru-sarrera gordinen mugak honako hauek izango dira:

BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial	GAZTEAK (GAZTELAGUN programatik kanpo) JÓVENES fuera del programa GAZTELAGUN	GAINONTZEKOAK Resto
Eskatzaile indibiduala Solicitante individual	24.500 - 30.000 €	3.000 - 30.000 €
2 kideko familia-unitateak Familias de 2 miembros	30.000 - 35.000 €	3.000 - 35.000 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak Familias de 3 o 4 miembros	30.000 - 40.000€	3.000 - 40.000 €
Familia ugariak Familias numerosas	32.000 - 45.000 €	3.000 - 45.000 €



4.artikulua:

«4. artikulua. Baztertzeak.

b) Alokairu errentek, gehienez, honako hauek izan beharko dute

BIZIKIDETZA UNITATEA Unidad convivencial	Alokairu errentaren gehienezko zenbatekoa
Eskatzaile indibiduala/Solicitante individual	750 €
2 kideko familia-unitateak / 2 bizikide Familias de 2 miembros / 2 convivientes	800 €
3 edo 4 kideko familia-unitateak / 3 edo 4 bizikide Familias de 3 o 4 miembros / 3 o 4 convivientes	900 €
Familia ugariak / 5 bizikide edo gehiago Familias numerosas / 5 convivientes o más	1000 €

SEIGARRENA.- 7. artikulua: Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diru sarreraren tartek ere egokitu egin dira, gehineko diru sarrerak kontutan hartuta:

DIRU-SARREREN TARTEAK	
Diru-sarrerak	Dirulaguntza
<15.000 €	Alokairuaren % 60
15.001 - 21.000 €	Alokairuaren % 50
21.001 - 30.000 €	Alokairuaren % 40
30.001 - 37.000 €	Alokairuaren % 30
37.001 - 45.000 €	Alokairuaren % 20

12. artikulua. Prozedura.

- «Instrukzioa eta proposamena:

1. Tolosako Udaleko dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 19. eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo da instrukzioa eta proposamena.



Organo eskudunak:

- *Instrukzioa: Etxebizitza zerbitzuko teknikaria.*
- *Balioespen batzordea: Antolakuntza Batzordea.*
- *Ebazpena: Organo eskuduna.*

2. Antolakuntza Batzordeari dagokio eskabideak baloratzea, saileko arduradunak emandako txostenean oinarrituta. Balorazio eta ebazpen-proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaizkio, hark onar ditzan.

- Ebazpena:

- 1. Ebazpen proposamena onetsi ondoren, organo eskudunak amaiera emango dio prozedurari, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera arrazoitutako ebazpen baten bidez, eta prozeduran egiaztatuta utzi beharko dira ebazpenaren oinarriak.*
- 2. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik badago.»*

15. artikulua. Arautegi aplikagarria

«Laguntza horiek emateko eta onuradunaren eta dirulaguntza ematen duen erakundearen arteko harreman juridikoari dagokionez, oinarri hauek eta laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorra. Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.*
- Tolosako Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra.*
- Agindua, 2022 apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren-alokairu laguntzak.»*

BIGARRENA.- Ordentzaren aldaketa hauek eta dagokion espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren webgunean eta gardentasun atarian argitaratzea.



LAUGARRENA.-Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta daudela ulertuko dela.

BOSGARRENA.- Zerbitzu zorroaren gaineko informazio agregatua, laburra eta argia, ematea, apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/16 Legearen 54.d) artikulua arabera.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udalean etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

3. ONARTZEA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEA, 2020KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAREN DEUSEZTASUN-ERREKLAMAZIOARI ETA ADMINISTRARIEN LAU PLAZA HAUTATZEKO PROZESUARI DAGOKIENEZ.

Antolakuntza batzordeak aurkeztutako irizpena aztertu eta bozkatu aurretik, PSE/EE udal taldeak aurkeztu duen emendakina aztertu dute Udalbatzako kideek. Aurkeztutako zuzenketa honako aldaketa hau egitean datza:

Emendakinaren proposamena:

«Osoko bilkurara ekarritako irizpen proposamenak honako hau dio:

.....

BIGARRENA.- Hautaketa-prozedura hori **ez etetea**, espedientean dagoen txosten juridikoan argudiatutako arrazoiengatik.



HIRUGARRENA,- Alkatetzari ahalmena ematea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzeko. Irizpen-eskaerarekin batera, planteatutako gaiari dagokion dokumentazio guztia aurkeztuko da. Irizpena eskatzea erabakitzeke emandako ebazpenean bertan, ebazpena emateko epea etetea erabakiko da, eskaera egin eta irizpena jaso bitartean, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

22. artikulua aurreikusten duen aukera baliatuta. Epearen etenaldiari dagokion Ebazpena eta txostena jasotzeko epea interesdunei jakinaraziko zaie.»

Horren ordez, honako hau proposamen du zuzenketak:

«**BIGARRENA.-** Alkatetzari ahalmena ematea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzeko. Irizpen-eskaerarekin batera, planteatutako gaiari dagokion dokumentazio guztia aurkeztuko da. Irizpena eskatzea erabakitzeke emandako ebazpenean bertan, ebazpena emateko epea etetea erabakiko da, eskaera egin eta irizpena jaso bitartean, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

22. artikulua aurreikusten duen aukera baliatuta. Epearen etenaldiari dagokion Ebazpena eta txostena jasotzeko epea interesdunei jakinaraziko zaie.

HIRUGARRENA.- Hautaketa-prozedura hori **etetea**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso bitartean. Erabaki hau interesdunei jakinaraziko zaie.»

Zuzenketa bozkatu ondoren, emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du PSE-EE udal taldeak aurkeztu duen emendakina.

Ondoren, Udalbatzako kideek aztertu eta bozkatu dute Antolakuntzako Batzordeak 2022ko irailaren 21ean egindako bilkuran onartu zuen irizpena, aurretik ebatzi diren zuzenketarekin aldatuta:



I.- AURREKARIAK

2017ko uztailaren 28an, I.R.I. jaunak, Udal honetako bitarteko funtzionarioak, idazkia aurkeztu zuen Sarrera Erregistro Orokorrean (errekurtso deritzo), Tokiko gobernu-batzarrak 2020ko urriaren 20ko bilkuran eta 2022ko apirilaren 12koan hartutako ebazpenak baliogabetzat jo daitezzen eskatzeko. Ebazpen horien bidez, hurrenez hurren, 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen, barne-sustapen bidez Administrazio Orokorreko lau administrari lanpostu hautatzeko, eta aipatutako lanpostuak hornitzeko oinarriak onartu ziren eta hautaketa-prozesuaren deialdia egin.

Gaur egun, prozesu hori ia amaituta dago, jarraian azalduko denez.

Hauek dira mugarri nagusiak:

A) 2020KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.

1. Tolosako Udaleko Tokiko gobernu-batzarrak 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen urte horretako urriaren 20ko bilkuran.
2. Onartu aurretik, eskaintza Udaleko langileen ordezkariekin negoziatu zen.
3. Eskaintza horretan, administrazio orokorreko administrarien lau lanpostu sartu hartu ziren, barne-sustapeneko sistemaren bidez bete beharrekoak. Era berean, eskaintzak beste plaza batzuk hornitzea aurreikusten zuen, guztiak txanda ireki bidez.
4. Aipatutako erabakiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2020ko azaroaren 11n, baita egun bereko EHAA n ere.
5. Erabakia ez zen legez ezarritako epeetan aurkaratu, ez administrazio-bidean, ez eta administrazioarekiko auzi-errekurtso bidez, eta, beraz, irmo bihurtu zen.

B) 2022AN BARNE-SUSTAPEN BIDEZ LAU ADMINISTRARI HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO OINARRIAK.

1. Tolosako Udaleko Tokiko gobernu-batzarrak Administrazio Orokorreko lau administrari plaza betetzeko deialdia eta berariazko oinarriak onartu zituen 2022ko apirilaren 12ko bilkuran.
2. Prozedurak, Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioentzat gordeta zegoenak, aukera ematen zien Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko funtzionarioei parte hartzeko (sustapen gurutzatua), bai sailkapen-talde edo azpitalde berekoek, bai hurrengo talde edo azpitaldekoek (sustapen horizontala eta bertikala).



3. Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2022ko apirilaren 27an, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean 2022ko maiatzaren 4an (iragarki-laburpena). Oinarri arautzaileak Tolosako Udalaren webgunean ere argitaratu ziren 2022ko maiatzaren 4an bertan.
4. Bi akordio horiek langileen ordezkariekin negoziatu ziren, eta halaxe jasota dago horretarako izapidetutako espedienteetan eta akordioen testuan bertan.
5. Erabaki horiek ez ziren legez ezarritako epeetan aurkaratu, ez administrazio-bidean, ez administrazioarekiko auzi-errekurtso bidez, eta, beraz, irmo bihurtu ziren.
6. Prozesua ia amaituta dago orain. Aurkeztutako hiru hautagaietatik bi onartu ziren. Oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea amaitu ondoren, bi hautagaik gainditu dute hautaketa-prozesua, eta oraindik izendatzeke daude. Laburbilduz, barne-sustapen bidez lau plaza deitu baziren ere, bi baino ezin dira bete; hau da, sistema horren bidez deitutako plazen % 50.

C) I.R.I. JAUNAK AURKEZTUTAKO IDATZIA.

1. I.R.I. jaunak, 2022ko uztailaren 28an, Udal honetako Erregistro Orokorrean aurkeztutako idatziaren bidez (8686 sarrera-zenbakia), honako erabaki hauek hartzeko eskatu zuen:
 - a) 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeko erabakiaren deuseztasuna deklaratzeko, barne-sustapeneko txandarako erreserbatutako administrazio-langileen lanpostuei dagokienez.
 - b) Lanpostu horiek betetzeko oinarri espezifikoak onartzeko erabakia eta hautaketa-prozesua garatzeko deialdia deuseztatutzat jotzea.
 - c) Aipatutako hautaketa-prozeduratik eratorritako deialdien eta gainerako egintzen betearazpena etetea.
 - d) Enplegu Publikoaren Eskaintza espezifiko berria onartzea, aurkaratutako lau lanpostuetarako.
 - e) Bidezko deialdiak onartzea, herritar guztiek sarbide irekia izan dezaten.
 - f) Bitarteko langileei barne-sustapeneko prozesuetan parte hartzeko aukera ematea.



II.- APLIKATZEKO DEN ARAUDIA.

Aurkeztutako idazkia aztertu ondoren, honako araudi hau aztertu behar da:

1. Espainiako Konstituzioa: 23.2, 14., 103., eta 149.1.18 artikulua.
2. 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedurarena: 47., 49., 51., 106., 108., 110., 115.2, 116.d), 124. eta 125. artikulua.
3. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duena: 1., 3., 6., 14.c), 16., 18., 37.1.c) eta f), 55., 56., 61., 70. artikulua eta Bigarren xedapen gehigarria.
4. 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Toki-administrazioaren funtzionarioak hautatzeko prozesuak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituenak: 1., 2. artikulua eta bat datozen gainerako oinarrizkoak xedapenak.
5. 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak: 53., 90.2, 91., 92.1, 102. artikulua eta Bigarren xedapen gehigarria.
6. 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenak onartzen dituenak: 128., 133., 134., 167. eta 169. artikulua eta Azken xedapenetatik zazpigarrena.
7. 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duena: 10.4 artikulua.
8. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: 1., 2.1.d), 23., 25., 27., 30., 43., 55., 56. eta 69.2.c) artikulua eta Hamaseigarren xedapen gehigarria.

III.- AZTERKETA JURIDIKOA

A) AURRETIAZKO GAIK

1) I.R.I. JAUNAK AURKEZTUTAKO IDAZKIAREN EZAUGARRIAK

1. Sarrera-erregistro elektronikoan dagoen eskabidean, «Errekurtso» gisa ageri da aurkeztutako idazkia. 39/2015 Legearen 124. eta 116.d) artikuluetan ezarritako irizpideen arabera, bidezkoa izango litzateke Errekurtsoa ez onartzea, epea kanpo aurkezteagatik, berraztertze errekurtsoa delakoan.
2. Era berean, ezingo litzateke Berrikuspen Errekurtso Berezizat hartu, ez baita Lege horren 125.1 artikuluan jasotako ezein inguruabar betetzen: egitezko akatsa, espedienteari erantsitako dokumentuetatik eratorria;



funtsezko balioa duten dokumentu berriak agertzea; epai irmo bidez faltsutzat jotako dokumentuak egotea; edo prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo epai irmo bidez zigorgarritzat jotako beste jokabide bat egotea.

3. 39/2015 Legearen 115.2 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, eta I.R.I. jaunaren eskubideak bermatze aldera, aukera bakarra dago: bere idazkia ofizioz berrikusteko eskaeratzat jotzea, aipatutako lege-testuko 106. artikuluan xedatutakoa betez:
 - a) Administrazio-egintza horiek irmo bihurtu dira, ez baitira horretarako lege ezarritako epean aurkaratu, ez administrazio-bidetik, ez jurisdikzio-bidetik. Zentzu horretan, honela adierazten du Gaztela eta Leongo Kontseilu Aholku-emaileak: *«Para dar curso al procedimiento de revisión de oficio de actos nulos de pleno derecho, es necesario que concurren los siguientes presupuestos: Que se encuentren en uno de los supuestos enumerados en el artículo 47.1 o que, al amparo de la última letra del citado precepto, estén expresamente previstos en una ley. Que pongan fin a la vía administrativa o que no hayan sido recurridos en plazo, si bien este último es un requisito que sólo jugará cuando se inicie la revisión a instancia del interesado y no cuando el procedimiento sea instado de oficio por la propia Administración autora del acto. Que la solicitud de revisión de oficio se inste por persona interesada o de oficio por la propia Administración. (175/2020, 36/2019 Irizpenak). Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ere jarrera bera du, eta, adibide gisa, aipatzekoa da 97/2022 Irizpena.*
 - b) Egintza horien aurka egin da, erabateko deuseztasunerako ustezko kausak argudiatuta, eta ez deuseztagarritasun hutsekoak.
 - c) Interesdunak alegatzen du 23.2 artikulua urratu dela, indarrean dagoen Konstituzioaren 14. eta 103. artikuluei dagokienez, eta eskubideak Konstituzioaren babespean egoteko modukoak direla, aipatutako lege-testuko 53. artikuluan xedatzen denez. Artikulu horiek ustez urratuz gero, erabateko deuseztasun-kausa izango litzateke, 39/2015 Legearen 47.1.a) artikulua araberara.
4. Administrazio Publikoen Administrazio-prozeduraren 39/2015 Legearen 106 artikulua, honela xedatzen du 1. apartatuan: *«Administrazio publikoek, noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta aurrez aldeko irizpena emanik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, deuseztat deklaratu dituzte, ofizioz administrazio-bidea amaitu duten administrazio-egintzak edo epe barruan aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 47.1 artikuluan jasotako kasuetan».* Hau da, posible da alderdi batek eskatuta administrazio-egintzen



ofiziozko berrikuspena eta, ondoren, deuseztasun-adierazpena egitea, baldin eta egintza horiek administrazio-bidea amaitu badute, edo epe barruan errekurritu ez badira, hau da, irmo bihurtu direnean.

5. Laburbilduz, Udal honetako Tokiko gobernu-batzarrak hartutako bi erabakiren Ofizioa Berrikusteko eskaeratzat hartu behar da I.R.I. jaunak aurkeztutako idazkia, honako hauei lotuta baitago: 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza, Administrazio Orokorrean barne-sustapen bidez bete beharreko administrari lanpostuei dagokiena, eta hautaketa-prozesua zein deialdia arautzeko oinarri espezifikoak. Bi erabaki horiek administrazio-egintzak dira

2) I.R.I. JAUNAK OFIZIOZ EGINDAKO BERRIKUSPEN-ESKAERA IZAPIDERA ONARTZEKO BALDINTZAK.

1. Aurreko atalean adierazitakoarekin lotuta, aipatutako 39/2015 Legearen 106.3 artikulua honako hau ezartzen du: «*Ofizioz berrikusteko eskumena duen organoak, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpena eskatu beharrik gabe, interesdunek egindako eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake, arrazoiak azalduta, honako kasu hauetan: eskaerak 47.1. artikulua arabera deuseztatzea jatzeko arrazoiaren batean oinarritzen ez direnean, edo nabarmen funtsik gabeak direnean, edo oinarri berdintsuko beste eskaera batzuk funtsari dagokionez ezetsita daudenean*». Atal honetan aztertu behar da ea egoera honetan bidezkoa den I.R.I. jaunak aurkeztutako eskaera izapidetzera ez onartzea.
2. Ildo horretan, argitu behar da apartatu honetan txostenaren mamia dela aurkeztutako eskaera izapiderako onartu behar den ala ez aztertzea, gaiaren funtsaren inguruko balorazioa gorabehera. Kontua ez da erreklamaziogileak argudiatutako balizko deuseztasun-kasuak aztertzea, baizik eta aurkeztutako idazkia izapidera ez onartzeko arrazoi posibleak baloratzea eta, ondorioz, prozedurarako eskubidearen inguruan erabakitzea.
3. Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen Legearen (APAPEL) 106.3 artikuluan ez onartzeko hiru kausa aipatzen dira:
 - a) Eskaeraren funtsa 47.1 artikuluan jasotako deuseztasun-kausetako batean oinarrituta ez egotea. Kasu honetan, interesdunak alegatu du, ustez, urratu egin direla APAPELaren 47. artikulua 1. paragrafoa a) eta f) apartatuak. Edukiaren balorazioa alde batera utzita, interesdunak argudioak eman ditu defendatzeko indarrean dagoen Konstituzioaren 23.2 artikulua urratu dela –babestu daitekeen eskubidea–, eta



hautagaiek ordenamendu juridikoaren aurkako egintzen bidez eskuratu dituztela ahalmen edo eskubideak, funtsezko betekizunik gabe.

- b) Eskaerak ageriko oinarririk ez izatea. I.R.I. jaunak aurkeztutako idazkian adierazitako azterketa eta balorazioekin bat ez etorri arren, kontuan izan behar da jurisprudentziak irizpide horri buruz egiten duen interpretazioa. Horrela, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2021eko otsailaren 24an emandako 254/2021 Epaian (8075/2019 Errek.), ezartzen du ofiziozko berrikuspenaren mugak daudela (gaur egun APAPELaren 110. artikuluan araututa) eta horrek ezin duela berrikuspen-eskaera izapidetzera ez onartzea eragin: *«...Ahora bien, la revisión de oficio no es sino una potestad de revisión que se confiere por el Legislador a las mismas Administraciones para declarar esa nulidad de sus propios actos, pero esa potestad está sometida a la regla general que ya se impone, el mayor tango normativo, en el artículo 105.c) de la Constitución, es decir al procedimiento administrativo. En la redacción originaria del artículo 102 en la Ley 30/1992, en el párrafo segundo del artículo 102, se establecía expresamente que "El procedimiento de revisión de oficio, fundado en una causa de nulidad, se instruirá y resolverá de acuerdo con las disposiciones del Título VI de esta Ley", por tanto, había una remisión expresa y genérica a las reglas generales del procedimiento administrativo, más que procedimiento en sí mismo considerado, que se regulaban en dicha Ley. La remisión desapareció con la reforma de dicha Ley en 1999, sin duda por estimar innecesaria esa exigencia. La Exposición de Motivos de la Ley de Reforma de 1999 expresamente decía que la reforma del precepto pretendía "reforzar las garantías jurídicas de los ciudadanos frente a la actuación de la Administración", lo que redundaba en la exigencia de los principios del procedimiento general. Pues bien, en esa regulación general no existe precepto alguno que permita a la Administración la declaración de no iniciar un procedimiento administrativo, sin perjuicio de la eventualidad de no reunir los requisitos formales en la petición, como después se verá. De lo antes expuesto hemos de concluir que, como regla general, no existen fundamentos para que una Administración pública pueda declarar a línime la inadmisibilidad de un procedimiento de revisión de oficio. Ahora bien, es cierto que el artículo 102 de la Ley de 1992, sí estableció, precisamente en la reforma de 1999, la posibilidad de un rechazo a iniciar el procedimiento pero por una causa muy tasada que deberemos después examinar. Lo que interesa destacar, a los efectos del debate suscitado es que, esa regla general, con la especialidad a que se hecho referencia, comporta que no es admisible que por alguna de las causas que se contemplaban en el artículo 106 de la Ley de*



1992 pueden servir de justificación a una declaración de inadmisibilidad del procedimiento de revisión porque el Legislador no lo autoriza.». ...«Pues bien, difícilmente sería pensable que la equidad, la buena fe, el derecho de los particulares o las leyes o incluso con menor razón la prescripción, puedan servir de fundamento de excluir la revisión de oficio sin trámite alguno, porque es difícil apreciar esas circunstancias sin, al menos, algunos trámites que permitan concluir su concurrencia. Podría admitirse que hay supuestos en los que el procedimiento que deba tramitarse esté simplificado por ser patente y ostensible el óbice para la declaración de nulidad al amparo de la potestad de revisión, pero en modo alguno declararla a límine sin ningún trámite, en especial, los de audiencia de los afectados y la posibilidad de aportación de pruebas.» Asimismo, La Sentencia del Tribunal Supremo de 15 de julio de 2016 describe el contenido de la potestad de inadmisión a trámite indicando que la misma «*faculta a realizar un juicio anticipado con la sola finalidad de cercenar ab initio un procedimiento instado sin que concurren, de forma ostensible, los requisitos legalmente exigidos para pretender de la Administración la revisión de oficio de un acto previo, de forma que el órgano administrativo llamado a resolver sobre dicha revisión haga un juicio adelantado cuando —como recuerda la sentencia de la Sección Tercera de esta Sala Tercera de 5 de diciembre de 2012, con cita en otras anteriores de 27 de noviembre de 2009, 26 de noviembre de 2010 y 28 de abril de 2011— anticipadamente se conozca que la misma en ningún caso va a ser estimada. Se trata de no proceder a la tramitación que establece el propio art. 102 y antes de recabar el correspondiente dictamen del órgano consultivo, cuando se sabe, de modo ostensible y palmario, la falta de viabilidad y aptitud de la acción de nulidad entablada. Supone, en fin, poner a cubierto este tipo de procedimientos de solicitudes inconsistentes por temerarias*».

c) Mamiari dagokionez, funtsean berdinak diren beste eskaera batzuk ezetsi izana. Ez da beste eskaerarik egon aurkaratutako prozedurari dagokionez.

4. Horrenbestez, eta I.R.I. jaunak emandako funtsezko arrazoiaren balorazioa alde batera utzita, izenpetzen dutenen iritziz, bidezkoa da Tolosako Udalaren Tokiko gobernu-batzarraren aurkaratutako ebazpenak ofizioz berrikusteko prozedura hastea.

3.) I.R.I. JAUNAREN LEGITIMAZIOA.

1. APAPELaren 106. 1 artikulua eskatzen du ofizioz berrikusteko eskaera baten sustatzailea interesdun izatea. Aipatutako Legearen 4.1 artikulua araber,



- «1. Se consideran interesados en el procedimiento administrativo: a) Quienes lo promuevan como titulares de derechos o intereses legítimos individuales o colectivos. b) Los que, sin haber iniciado el procedimiento, tengan derechos que puedan resultar afectados por la decisión que en el mismo se adopte. c) Aquellos cuyos intereses legítimos, individuales o colectivos, puedan resultar afectados por la resolución y se personen en el procedimiento en tanto no haya recaído resolución definitiva.
2. I.R.I. jauna udal honetako bitarteko funtzionarioa da 2019ko maiatzaren 20tik, eta Administrazio Orokorrean hutsik dagoen administrari lanpostua betetzen du (errenta-administraria).
 3. Lanpostu hori 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu zen (orain aurkaratutakoa), eta barne-sustapen bidez betetzeko deialdian sartu zen.
 4. Hori ikusita, hasiera batean ondoriozta liteke I.R.I. jaunak legitimazioa baduela ofizios berrikusteko eskaera aurkezteko.
 5. Hala ere, hautaketa-prozesuaren garapena ikusita, hasiera batean barne-sustapen bidez deitutako plazen % 50 gutxienez sistema libre bidez bete beharko dira; beraz, erreklamazioak hautaketa-prozesu libre batean parte hartzeko eskubidea baliatu ahal izango du.

B) AURKARATUTAKO EBAZPENEN AZTERKETA

1) TOKI-ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOEN BARNE-SUSTAPENA LEGEZ ARAUTZEA

1. AURKARATUTAKO HAUTAKETA-PROZESUA ETA ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA: 781/1986 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUAREN 169.2.b) ARTIKULUAREN INTERPRETAZIOA ETA LEGE-TESTU HORREN 134. ARTIKULUAREN EZ-OINARRIZKO IZAERA

Aurkeztutako idazkian, I.R.I. jaunak argudiatu du administrazio orokorreko administrari lanpostu guztiak barne-sustapen bidez betetzeko gordetzeak, lehenik, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren (Toki-araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenak onartzen dituena) 169.2.c) artikulua urratzea dakarrela, lege-testu horren 134. artikuluari dagokionez, eta defendatu du aipatutako artikuluetan lehena oinarrizko legeria dela. Bere tesia indartzeko, hainbat jurisprudentzia aurkeztu du, zeinaren edukiak arreta berezia eskatzen baitu, zalantzarik gabe. Hala ere, aurreratu da jurisprudentzia hori ez dela unibokoa; izan ere, Auzitegiek onartu dute barne-sustapeneko prozesuak daudela administrazio orokorreko administrari lanpostuak betetzeari dagokionez, geroago egiaztatuko denez. Era berean, ez da



kasualitatea aurkeztutako jurisprudenzia Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu bategina (EPOELTB) baino lehenagokoa izatea, edo gure autonomia-erkidegotik kanpo dauden eremu geografikoekin bat etortzea ia kasu guztietan.

Aurkeztutako jurisprudenziari dagokionez, argudio-bide nagusietako bat da Toki-araubidearen arloan indarrean dauden Lege-xedapenak onartzen dituen Legegintzako Errege Dekretuaren (TATB) 134. artikulua urratzen dela, ustez. Artikulu hori, ordea, ez da oinarrizkoa eta, geroago aztertuko denez, ez da gure autonomia-erkidegoan aplikatzekoa.

Hala ere, aldez aurretik, beharrezkoa da idazkian aipatzen diren TATBaren artikulua aztertzea, hitzez hitz, eta, horretarako, arauaren hitzez hitzeko interpretazio-irizpideetara jo behar da, indarrean dagoen Kode Zibilaren 3. artikulura:

- 169.2 artikulua honako hau ezartzen du: «2. *Hasta tanto se dicten las normas reglamentarias previstas en el artículo 100.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, la selección de los funcionarios a que se refiere el número anterior se ajustará a las siguientes reglas :..... b) El ingreso en la Subescala Administrativa se hará por oposición libre, y se precisará estar en posesión del título de Bachiller, Formación Profesional de segundo grado, o equivalente. No obstante, se reservarán para promoción interna el 50 por 100 de los puestos de trabajo existentes para los pertenecientes a la Subescala de Auxiliares de Administración General que posean la titulación indicada, y cuenten con cinco años de servicios en la Subescala.*». Azken xedapenetatik zazpigarrenak oinarrizko izaera ematen dio artikulua horri.
- 134. artikulua honako hau ezartzen du: «1. *Las convocatorias serán siempre libres. No obstante, podrán reservarse para promoción interna hasta un máximo del 50 por 100 de las plazas convocadas para funcionarios que reúnan la titulación y demás requisitos exigidos en la convocatoria.*» **Hala ere, artikulua horrek ez du oinarrizko izaerarik**, Azken xedapen horretan ezarritakoaren arabera.
- Kode Zibilaren 3. artikulua honako hau ezartzen du: «1. *Las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, en relación con el contexto, los antecedentes históricos y legislativos, y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquellas.*» Beraz, artikulua TATBaren 169.3 artikulua b) apartatuaren idazketaren zentzu literala kontuan hartuta, barne-sustapenerako erreserba % **50ekoa izango da, baina ez % 50erartekoa**; hau da, artikulua horrek % 50eko erreserba ezartzen du, baina inon ez da esaten erreserba hori mugatzailea denik. 134. artikuluan ezartzen da



muga hori, eta, aurretik baieztatu denez eta Azken xedapenetako zazpigarrenean adierazi denez, artikulua hori ez da oinarritzakoa.

- Gainera, aginduzko izaera edo izaera mugatzailea emango bagenio 169.2.b) artikuluan barne-sustapenari buruz xedatutakoari, sustatu beharreko langilerik ez dagoen toki-administrazioetan ezinezkoa izango litzateke plazak betetzea, eta, beraz, xedarean kontrako ondorioa eragingo luke. Irizpide hori oinarri hartuta, administrazio orokorreko administrarien lanpostu hutsak ezin izango lirateke sistema libre bidez deitu.
- Azkenik, ezin dugu ahaztu xedapen hori eman zeneko une historikoa eta testuingurua. Hain zuzen ere, garai hartan, toki-administrazioetan langile berriak sartzeko ez zegoen inolako murrizketarik, eta, beraz, ulergarria litzateke sarbide irekiko sistema nagusitzea barne-sustapenaren gainetik. Hala ere, estatuko aurrekontu orokorren legeriak txertatutako neurrien ondorioz, **birjarpen-tasaren** bidez langile berriak sartzeko ezarritako muga zorrotzak –eta, batzuetan, debekuak– ia ezinezko egiten du langile berriak sartzeari; horrela, administrazioek tasa hori ezartzen ez duten prozeduretara jo behar izan dute langileen arloan dituzten beharrezkoak betetzeko eta, bestalde, hain ondorio larriak eragin dituzten bitartekotasun-egoerak saihestu dituzte.
- Beraz, araua hitzez hitz interpretatzeaz gain (ez zentzu mugatzailean), araua aplikatzeko uneko errealitate soziala eta **araudia** kontuan hartu behar dira. Birjarpen-tasak direla-eta langile berriak hartzeko aukerarik ez dagoenean, administrazioak beste bide batzuk erabili behar ditu bere zerbitzurik funtsezkoenak betetzeko, hala nola barne-sustapena (tasa horretatik berariaz kanpo utzi dena).

2. ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN TESTU BATEGINA ETA FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO EUSKAL LEGERIA. LAN-BALDINTZAK ARAUTZEKO HITZARMENAK

TATBaren 169.2 artikulua b) apartatuan ezarritako ehunekoaren izaera ez-mugatzailearen kausa bakarra ez da soilik haren terminoen idazketa, ez 134. artikuluan barne-sustapenerako ezarritako mugaren ez-oinarrizko izaera, ezta birjarpen-tasek sortutako ondorio larriak ere, araua aldarrikatu zenean ez baitziren existitzen. Hori horrela, ezinbestekoa da TATBaren ondoren onartutako oinarritzko legeria aztertzea, baita hura garatzeko orain arte egin dena aztertzea ere (estatukoa eta autonomia-erkidegokoa):

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duenak, honako hau ezartzen du 1. artikuluan: «*El presente Estatuto tiene por objeto establecer las bases del*



régimen estatutario de los funcionarios públicos incluidos en su ámbito de aplicación». Era berean, 3.1. artikuluan, honako hau ezartzen du: «1. El personal funcionario de las entidades locales se rige por la legislación estatal que resulte de aplicación, de la que forma parte este Estatuto y por la legislación de las comunidades autónomas, con respeto a la autonomía local». 6. artikulua, berriz, honako hau xedatzen du: «En desarrollo de este Estatuto, las Cortes Generales y las asambleas legislativas de las comunidades autónomas aprobarán, en el ámbito de sus competencias, las leyes reguladoras de la Función Pública de la Administración General del Estado y de las comunidades autónomas».

- EPOELTBak, besteak beste, funtzionarioen barne-sustapenerako eskubidea ezartzen du 14.c) artikuluan: «Los empleados públicos tienen los siguientes derechos de carácter individual en correspondencia con la naturaleza jurídica de su relación de servicio: "...c) A la progresión en la carrera profesional y promoción interna según principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad mediante la implantación de sistemas objetivos y transparentes de evaluación. 18. artikulua, barne-sustapena arautzen duenak, honako hau ezartzen du 1. apartatuan: "se realizará mediante procesos selectivos que garanticen el cumplimiento de los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad así como los contemplados en el artículo 55.2 de este Estatuto". Era berean, **EPOELTBaren 18. artikulua 3. apartatuan jasota dagoenez, honako hauei dagokie barne-sustapena egiteko sistemen artikulazioa: «Las leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto».** Ez da kasualitatea EPOELTBak barne-sustapena ez mugatzea, kontuan hartzen badugu onartu zen egunean ia erabat eginezina zela toki-administrazioan lanpostu berriak sortzea, eta langile berriak sartzeko aukera langileen birjarpen-tasak mugatuta zegoela.
- Era berean, EPOELTBak Xedapen indargabetzaile bat du, hitzez hitz honela dioena: «*Quedan derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongán a lo dispuesto en el presente real decreto legislativo y al texto refundido que por él se aprueba...*»
- Bestalde, 861/1991 Errege Dekretuak, Toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituenak, ere oinarrizko xedapenak ditu, Azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera, eta ez du inolako alderdirik arautzen toki-administrazioko funtzionarioen barne-sustapenari dagokionez.
- Hau da, aipatutako arau-testuek arautzen dituzte oinarrizko izaeraz toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozesuak, Estatuak



funtzionarioen estatutu-araubidean duen eskumen eskusiboarekin bat etorri (indarrean dagoen Konstituzioaren 149.1.18 artikulua).

- Izenpetzen dutenen ustez, EPOELTBaren 18.3 artikulua egindako igorpena Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoan ezarritako terminoetan ulertu behar da. Izan ere, Lege horren 10.4 artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak **eskumen eskusiboa** du arlo hauetan: «*Régimen Local y Estatuto de los Funcionarios del País Vasco y de su Administración Local, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.18.ª de la Constitución*».
- Eskumen hori baliatuz, Eusko Legebiltzarrak Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea onartu zuen, zeinak 1. artikuluan definitzen baitu bere xedea: «*la ordenación y regulación de la función pública vasca y del régimen jurídico del personal que la integra*». Era berean, 2.1.d) artikuluan xedatzen da, bestek beste, Toki-administrazioako langileei aplikatuko zaiela.
- Era berean, 6/89 Legearen arabera, euskal funtzio publikoko langileen eskubidea da barne-sustapena (69.2.c artikulua).
- Lege horren 23. artikulua arabera, Enplegu Publikoaren Eskaintzen xede izango dira hauek: «*las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública*». Erkidego mailako araudian ezarritakoaren arabera, irizpide horren bidez zalantzan jartzen da barne-sustapeneko prozesuak eskaintza horietan sartu behar diren ala ez, dauden giza baliabideei soilik eragiten dietelako. Hala ere, gai hori ez da txosten honen xedea, Tolosako Udalak sartu egin baititu barne-sustapeneko lanpostuak Enplegu Publikoaren Eskaintzan.
- 6/1989 Legearen 23. artikuluan eta hurrengoetan, langileak hautatzeko sistemak arautzen dira. Edonola ere, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen barne-sustapenaren erregulazioa ez dago hor jasota. Erregulazio hori III. tituluan jasota dago (IV. kapitulua, laugarren atala, 55. eta 56. artikulua). Hala, 55. artikulua honako hau xedatzen du: «*Los funcionarios podrán acceder, mediante promoción interna, a Cuerpos y Escalas del Grupo inmediatamente superior al que pertenezcan, o del mismo Grupo*». 57. artikulua honako hau ezartzen du 2. apartatuan: «*2. El acceso por promoción interna **requerirá la superación de las mismas pruebas que las establecidas en la convocatoria para el ingreso con carácter general en el Cuerpo o Escala de que se trate**. No obstante, los aspirantes que concurran en el turno de promoción interna podrán ser eximidos de la realización de aquellas pruebas que estuvieran encaminadas a la acreditación de conocimientos ya exigidos para el*



ingreso en el Cuerpo o Escala de procedencia». Eta garrantzitsuena dena, **6/1989 Legeak ez du inolako mugarik ezartzen barne-sustapenerako, halaxe adierazita baitago 30.1.a) artikuluan: 1. Las convocatorias de pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario o personal laboral fijo al servicio de las Administraciones Públicas vascas deberán contener necesariamente: a) el número de vacantes, Grupo, Cuerpo y Escala o categoría laboral a la que correspondan, y porcentaje que se reserva para promoción interna.. Nolanahi ere, barne-sustapenerako gordetako lanpostuak, hutsik geratzen badira, txanda irekian eskaintzen direnak baino gehiago izango dira, 57. artikuluko 3. apartatuan xedatu legez. Era berean, 6/89 Legeak plantillan dauden giza baliabideak arrazionalizatzeko tresna gisa artikulatzen du langileen barne-sustapena; horrela, langileen arloan administrazio publikoen jarduketataratza diren arrazionaltasun-, ekonomia- eta eraginkortasun-printzipioei erantzungo zaielakoan.**

- Aipatu Legearen Hamaseigarren xedapen gehigarriak Administrazio orokorreko administrari laguntzaileen barne-sustapenerako berriazko prozedura ezartzen du. Xedapen hori aplikatuta, administrarien plazen % 100 barne-sustapen bidez bete behar dira **ezinbestean**.
- Ondorioz, 6/1989 Legearekin bat etorriz, ez litzateke inolako oztoporik egongo, lehen auzialdian, hutsik dauden lanpostuak barne-sustapen bidez eskaintzeko, eta, ondoren, hutsik geratu direnak txanda ireki bidez betetzeko. Beraz, lege-muga argia dago: **barne-sustapen bidez betetzen ez diren lanpostuak txanda ireki bidez bete beharko dira**, eta ezin izango dira berriro barne-sustapen bidez edo bestelako edozein prozeduraren bidez deitu.
- Interpretazio hori egokiagoa da, bai administrazio publikoek beren burua antolatzeko duten ahalmenari dagokionez, bai langileen birjarpen-tasek ezarritako mugei dagokienez.
- Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-administrazioetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren (UDALHITZ) 105. artikulua 1. eta 2. apartatuetan ezartzen denez, funtzionarioen barne-sustapenerako eskubidea aitortuko da, eta, **gutxienez, lanpostu hutsen % 33 barne-sustapenerako gordeko dira**. Akordio arautzaile hori erabat indarrean dago, eta ez du ezein ebazpenek indargabetu; hortaz, loteslea da Udal honentzat.
- Laburpen gisa, sinatzaileen iritziz, bi aukera baino ez daude:



- Edo TATBaren 169.2.b) artikulua oinarritzko izaera du, baina portzentajea ezin da zentzu mugatzailean ulertu. Muga hori 134. artikuluan ezartzen da, oinarritzkoa ez den arau batean.
- Edo xedapen hori ez da oinarritzkoa, eta, beraz, ulertu behar da funtzionario publikoen barne-sustapenaren erregulazioa EPOELTBak arautzen duela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediak garapen-araudi gisa.
- Nolanahi ere, xedapen horren interpretazioa egiteko orduan, kontuan izan behar dira Estatuko Aurrekontuen Legeak, EPOELTB eta 861/1991 Errege Dekretua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea eta funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituzten akordioak (gure kasuan, indarreko UDALHITZ), horietan guztietan ezartzen baitira langile berriak sartzeko prozesuei buruzko xedapen mugatzaileak.
- Horretaz gain, honako epai hauek ere aipatzen dira:
 - 2020ko uztailaren 20ko 399/2020 Epaia, Asturiasko Printzerriko Justizia Auzitegi Nagusiarena, aurreko atalean adierazitako ondorioetako bigarrena babesten duena, alegia TATBaren 169. artikulua indarra galdu duela EPOELTB eta 861/1991 Errege Dekretua onartu ondoren: *«Ahora bien, como ya antes señalábamos, la Sentencia de instancia centra la anomalía aplicable al supuesto enjuiciado en los preceptos anteriormente transcritos del Estatuto Básico del Empleado Público y en el art. 134.1 del Real Decreto Legislativo 781/86, desde el momento que el mencionado art. 169.2 establece "Hasta tanto se dicten las normas reglamentarias previstas en el artículo 100.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, la relación de los funcionarios a que se refiere el número anterior se ajustará a las siguientes reglas...", siendo las normas previstas en el mencionado precepto "Las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección y formación de tales funcionarios", **siendo la norma que regula hoy la materia el Estatuto Básico del Empleado Público**»*. Irizpide horretan oinarrituta, Auzitegiak ezetsi egin du jarritako apelazio-errekurtsoa.
 - Errioxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 72/2012 Epaia, otsailaren 22koa, Calahorrako Udalak langileen ordezkarietan sinatutako akordioari balioa ematen diona, administrazio



orokorreko 11 administrari lanposturi eragiten zien barne-sustapenerako prozesu baten erregulazioari dagokionez.

- 2008ko uztailaren 21eko 145/2008 Epaia, Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiarena, Cuencako Udalak sinatutako (eta bete gabeko) akordioaren bidez kotasuna adierazten duena, hutsik dauden lanpostu guztien (bereizketarik gabe) % 50 barne-sustapenerako gordetzeari dagokionez. Zehazki, aipatutako Udala kondenatzen da aipatutako akordio arautzailea ez betetzeagatik.
- Uztailaren 26ko 363/2016 Epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarena, Erandioko Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana berresten duena. Plan horren bidez, besteak beste, barne-sustapenerako gordetzen dira administrazio orokorreko administrari gisa birsailkatutako lanpostu guztiak.
- 2018ko ekainaren 8ko 293/2018 Epaia, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiarena, zeinetan ez baita inolako oztoporik ikusten, 9 administrari-lanpostu betetzeko deialdi batean, 7 barne-sustapen bidez eta 2 txanda ireki bidez betetzeko, nahiz eta xedatzen den barne-sustapen bidez betetzen ez direnak txanda librean areagotu behar direla, Galiziako funtzio publikoari buruzko legerian ezarritakoa aplikatuz.
- Urriaren 17ko 998/2008 Epaia, Valentziako Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiarena, zeinaren bidez bermatzen baita administrari laguntzaile lanpostu guztiak barne-sustapenerako gordeko direla, enplegu publikoari buruzko erkidegoko legediaren babespean.

2) TOLOSAKO UDALEKO LAN-ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK. PROZEDURA KOPURUAK ETA MOTAK 2018TIK.

Azken urteotan, Tolosako Udalak lan handia egin du funtzio publikoan eta, oro har, hautaketa-prozesuetan sartzeko orduan berdintasun-, merezimendu- eta publizitate-printzipio konstituzionalak bermatzeko. Hona hemen azken urteetan onartutako Enplegu publikoaren eskaintzen laburpena:



URTEA	BARNE-IGOERA	HORNIDURA IREKIA
2018	0 lanpostu	6 lanpostu
2019	0 lanpostu	26 lanpostu*
2020	5 lanpostu	16 lanpostu*
2021	2 lanpostu	8 lanpostu
2022 (ohiko eskaintza)	0 lanpostu	8 lanpostu
*2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan aurreikusitako egonkortze- eta finkatze-prozesuetarako lanpostuak barne hartu dira, birjarpen-tasan zenbatzen ez direnak.		
2022 (ezohiko eskaintzak eta aparteko egonkortzekoak)	0 lanpostu	52 lanpostu (lehiaketa-oposizioa eta lehiaketa)

Ikus daitekeenez, txanda ireki bidez sartzeko prozedurak barne-sustapenekoak baino ugariagoak dira. Argitu beharra dago, 2018ko abenduan Udal honek Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan bat onartu zuela, bitarteko langileak egonkortzea helburu nagusizat zuena, 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan xede horrekin araututako xedapenen bidez. Horretarako, enplegu publikoaren hurrengo eskaintzetan barne hartu ziren bai lanpostu arruntak, langileen birjarpen-tasak mugatuta, bai aipatutako egonkortze-prozesuen ondoriozkoak. Hala ere, horiek guztiak sarbide irekiko prozeduren bidez arautzen ziren.

Aurkaratutako Enplegu Publikoaren Eskaintzan, Administrazio Orokorreko administrari lanpostu hauek sartzan dira, barne-sustapen bidez bete beharrekoak:

- Administrari lanpostu bi Erregistro Orokorreko eta Herritarrei informazioa emateko Bulegoan (UDATE). UDATE maiatzaren 13ko 768/219 Alkatetza Dekretuaren bidez sortu zen, herritarrei arreta emateko zerbitzu integral gisa. Bulego horri, Erregistro Orokorren eginkizunaz gain, herritarren eskaerei buruzko informazio- eta kudeaketa-lan ugari agindu zitzaizkion, udaleko sailekin hitzarmenak sinatuz, eta zeregin horiek egiteko, ezinbestekoa zen zerbitzu horretako langile-hornidura handitzea.
- Errenta-administrari lanpostu bat, sortu zenetik hutsik dagoena.
- Kontratazioko administrari lanpostu bat, hori ere sortu zenetik hutsik dagoena. Zerbitzu honetako administrari-lanpostu bakarra da.

Lanpostu guztiak 2018ko abenduan onartutako Giza Baliabideak Arrazionalizazio Planetik abiatuta sortu ziren, eta 2019ko Lanpostuen Zerrendan sartu ziren. Hutsik zeuden lanpostu horiek betetzea premia larria zen, funtsezko zerbitzuei eragiten baitzieten (Erregistroa eta Herritarrentzako Arreta Integrala, Zergen Kudeaketa, eta Kontratazioa eta Erosketak). Hala ere, langileen birjarpen-tasak eragotzi egiten zuen



lanpostu horiek deialdi libre bidez betetzea. Tolosako Udalak, bere burua antolatzeko ahalmena erabiliz, lehentasuna eman zion lanpostu horiek betetzeari, funtsezko zerbitzuak direlako, eta merezimendu-, gaitasun- eta berdintasun-printzipioak bete-betean bermatu zitzakeen prozedura bakarra abiatu zuen, hau da, barne-sustapena eta oposizio-lehiaketa.

Ez da hori izan Tolosako Udalak azken bi urteetan Administrazio Orokorreko administrari lanpostuak betetzeko egin duen prozedura bakarra. Informazio gehiago emateko asmoz, Udal honek 2019ko urriaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen txanda ireki bidez administrazio orokorrean lau administrari lanpostu betetzeko oinarriak, 2018ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritakoak. Prozesu hori 2021eko abuztuaren 11n amaitu zen, hautatutako lehen lau pertsonak praktiketako funtzionario izendatuta. I.R.I. jaunak, garai hartan Udal honetako bitarteko funtzionario zenak eta orain barne-sustapeneko prozesuaren kontrako aurkaratzearen sustatzaile denak, prozesu ireki horretan parte hartu zuen, baina ez zuen oposizio-faseko lehen proba gainditu.

Ondorioz, udal honek bi hautaketa-prozesu garatu ditu urtebeteko tarte txikian, biak ala biak administrazio orokorreko LAU administrari lanpostu betetzeko: txanda libreko prozesu bat (2018ko EPE), eta barne-sustapen bidezko prozesu bat (2020ko EPE).

Ondorioz, I.R.I. jaunak administrazio orokorreko administrari lanpostu bat eskuratzeko duen eskubidea ez da urratu Udal honek egindako jarduketan ondorioz:

- 2019ko urriaren 25ean argitaratutako deialdian parte hartzeko eskubidea baliatu zuen.
Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturatuta), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du berrestea 2022/2240 alkatetza dekretua, zeinaren bidez udalak prokuradorea izendatzen duen pertsonatzeko Kirolzer SL enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan aurkeztutako administrazioarekiko 566/2022 auzi-errekurtsoan.



8. ONARTZEA CIDE CHC ETA CIDE COR ENPRESEKIN, ELKARREN ARTEKO ADOSTASUNEZ, KONTRATUAK SUNTSIARAZTEA.

Lurralde batzorde informatiboaren 2022ko irailaren 21eko irizpena

1.- AURREKARIAK

Udalak energiaren merkataritza-laguntzako jarduerarekin lotutako kontratu hauek sinatu zituen:

1) Agentzia-kontratua:

2016ko urtarrilaren 1ean agentzia-kontratu bat sinatu zuen CIDE HCENERGÍA, SArekin ("CIDE HC") eskusiban. Kontratu horren helburua zen Tolosako udalerrian Udalak energia elektrikoa merkaturatzeko jarduera sustatzeko zerbitzuak ematea.

2016ko ekainaren 30era arteko iraupena zuen kontratu hark (6 hilabete). Hala ere, 3.2 klausularen eta Agentzia-kontratuei buruzko 12/1992 Legearen (maiatzaren 27koa) 24.2 artikularen arabera, bi aldeek agentzia-kontrata betetzen jarraitzen badute, kontratua iraupen mugagabeko kontratutzat hartzen da.

Bi aldeek jarraitu dute agentzia-kontrata betetzen, Kontratuak, beraz, indarran jarraitzen du, sinatu zeneko baldintzetan.

2) Zerbitzuak eskaintzeko zerbitzua

Tolosako Udalak eta CHC COR COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA, SL enpresak ("CHC COR") merkatu arautuko bezeroak energia elektrikoarekin hornitzeari lotutako zerbitzu-kontratu bat sinatu zuten 2016ko otsailaren 29an. 1. klausularen arabera, kontratuaren xedea da Udalak, kontratu-harreman honen arabera zerbitzuen emaille denak, honako zeregin hauek egitea:

1. Bere bulegoetan kontratazio-eskaerak jasotzea.
2. Eskaerak izapidetzea; besteak beste, bezeroen sinadurak eta kontratua sinatzea.
3. Bezeroei arreta eskaintzea.
4. Bezeroei banan-banako jarraipena.

Aipatutako zerbitzu-kontratuaren iraupenari dagokionez, 8. klausulak urtebeteko (1) iraupena aurreikusten du, eta horren ondoren, iraupen bereko aldika berritzen da kontratua isilbidez, baldin eta ez badiote aldeek berritze horri berariaz uko egiten.

- **Kontratuaren indarraldiari dagokionez, 2021/07/15ean, Udalari komunikazio bat igorri zion CHC COR enpresak** (izendapen berriarekin: Comercializadora de Referencia Energético, SLU, "CRE") posta elektronikoz bidez.



Komunikazio hartan alegatu zuen araudi-aldaketak izan direla erreferentziazko enpresa merkaturatzaileek egiten dituzten jardueretan, eta aldaketa horien ondorioz, merkaturatze-lanetarako «marjina ez dela nahikoa» eta horrenbestez, aldatu egin direla kontratuaren oinarri ekonomikoak.

Aipatutako zerbitzu horiek eskaintzeko, Udalak CHC COREn bezeroei aurrez aurreko arreta eskaintzeko pertsona bat du atxikita. CHC COREk komunikazio horretan aipatzen du, aurrez aurreko arreta horrek gaur egun dituen kostuak direla, hain zuzen, «epe luzerako jasanezinak» direnak.

Aurrez aurreko arreta horren kostuari aurre egiteko, bi aukera jarri dizkio CHC COR enpresak Udalari mahai gainean:

1. Zerbitzua eskaintzeko kontratua suntsitzea, eta kontratuak jasotzen duen kudeaketa hori contact center motako eredu zentralizatu batera eskualdatzea, eta hala, Udalak utzi egingo lioke kontratuan ezarritako prezioa jasotzeari (kontratu eta urteko 9 €), eta bertan behera geldituko litzateke kontratua.
2. Aurrez aurreko arreta eskaintzen jarraitzea, kontratuaren baldintzak aldatuta: «merkatuko baldintzen parean jarrita» (kontratu eta urteko 3,99 € izango lirateke, eta ez kontratu eta urteko 9 €).

Aipatu dugun komunikazio horretan, bi hilabeteko epea ematen dio CHC COREk Udalari bi aukeretako bat hautatzeko. Halaber, adierazi du, Udalak erantzuten ez badu, CHC COREk ulertuko duela ados dagoela Udalak kudeaketaren eskualdaketa egitearekin, eta Udalak kontratuan ezarritako prezio hori jasotzeari utziko diola, eta bertan behera geldituko dela zerbitzu-kontratua.

CHC COREn komunikazioari erantzuteko 2021/1515 Dekretua egin zuen Udalak, eta haren bidez eskatu zion enpresari bidal zezala komunikazio hori erregistro elektronikoko bidez, horretara behartuta daudelako, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.4 artikulua araber. Eskatu zion Udalak, halaber, bete zezala kontratuko 11. artikulua negoziatio-prozesua eskatzen duena.

Udalak eginiko eskaera aintzat hartuta, bide telematikotik, Udalaren erregistro elektronikoko bidez aurkeztu zuen komunikazioa CHC COREk, 2021/10/07an.

Bigarren komunikazio hartan, lehenengoan adierazitako aukerak planteatu zituen berriro CHC COREk, baina bigarren komunikazio honetan, lehen aipatutako 11. artikulua horri aipamena egin.

- **Udalak kontratu horiei buruzko Azterketa Juridikoa egiteko beharra ikusi zuen eta 2021eko azaroaren 24an Schlaich Dauss enpresarekin azterketa juridikoa egiteko kontratua formalizatu zen.**



2022ko Apirilaren 8an, txosten juridikoa jaso genuen.

- **Ondoren, gaia azertu eta gero, udalak kontratuak suntsiarazteko behar juridikoa erakutsi zien aipatu enpresei, eta kontratuak suntsiarazteko eredia bidali zien, adostasunez.**
- **2022ko abuztuaren 30ean Udaleko argiteria publikoaz arduratzen Ingeniari Teknikoak txostena egin zuen CHCek eta tolosako udalak agentzia eta zerbitzuen kontratuak eteteko akordio dokumentua sinatzeko beharra ondorioztatuz.**
- **Ondoren, sarrera erregistro bidez, 2022ko irailaren 13an, enpresek aipatutako kontratuak amaitzeko kontratuen eredu bana aurkeztu dute, udalak proposatutako berdinak, baina klausula hauek erantsiz:**

Klausula hauek ondorengoak dira:

1. Agentzi kontratuan klausula berri hauek sartu dituzte:

Hirugarrena: Konpetentzia ez egitearena.

Laugarrena: Datu Babesari buruzkoak, Softwarra bueltatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Bostgarrena: konfidentziasunari buruzkoa.

2. Zerbitzua eskeintzeko kontratuari buruz, ondorengoak:

Hirugarrena- Datu babesari buruzkoak, software bueltatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Laugarrena- Konfidentziasunari buruzkoa.

2.- AZTERKETA JURIDIKOA

2022ko irailaren 14an Udal Teknikari Juridikoak txostena idatzi zuen eta honakoa jasotzen zen bertan:

“(…)

Aipatutako kontratuak sinatzearen lege-testuingurua hauxe izan zen:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 96/92/EE Zuzentaraua, 1996ko abenduaren 19koa, elektrizitatearen barne-merkatu arau komunei buruzkoa onartu zenean, lehen aldiz sumatu zen Europar Batasunak energia elektrikoaren hornidura-jarduerari liberalizatzeko joera hartu duela.



Sektore Elektriokoari buruzko 54/1997 Legeak, 1997ko azaroaren 27koak, Batasunaren joera hori islatu zuen eta esparru nazionalera ekarri. Lege horrek sektorea pixkanaka liberalizatzeko prozesuaren hasiera ekarri zuen: sareak hirugarrenei zabaldua, energiaren negoziatorako merkatu ordenatu bat ezarrita eta sistemaren kudeaketan esku-hartze publikoa murriztuta.

Hala, zenbait jarduera bertikalean desegin ziren, eta bereizi egin ziren jarduerak: batetik, monopolio naturalekoak, garraioa eta banaketa; eta bestetik, lehia askean egiten direnak, sorkuntza eta merkaturatzea.

Elektrizitatearen sektorea Estatuaren monopolio izatetik merkatu liberalizatu izatera aldatzen duen paradigma-aldaketa honetarako trantsizioa eta hura sendotzea finkatu du Batasunaren arau-multzoak. 2000. urtean egindako Lisboako Kontseiluak Batasuneko erakundeei eskatu zien emateko liberalizazioari beste bultzada bat. Behin betiko bultzada hori 2003/54/CE Zuzentarauak ekarri zuen, eta sektorearen gaur egungo erregulazioaren atariko da, Sektore Elektriokoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legean jasoa.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, bete-betean hasi ziren merkaturatzaileak energia elektrikoaren horniduraz lehia askean arduratzen, eta kontsumitzaileek, beraz, aukeratu egin dezakete haien hornitzailea (merkaturatzailea).

Hala ere, liberalizazio-prozesua ez da oraindik burutu, eta beraz, bada oraindik merkatu arautu bat. Merkatu horretan, tarifa elektrikoaren prezioa finkatzen da, kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioa (KTBP) izenekoa, eta erreferentziazko merkaturatzaileek bakarrik eskain dezakete (tartean da CHC COR). Aldiz, merkatu libreari dagokionez, Estatuan ehun enpresa merkaturatzaile baino gehiago daude, eta horiek ez daude tarifa elektriko arautu bati lotuta (tartean da CIDE HC).

Sektore elektrikoaren jardueren banaketa Sektore Elektriokoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 12. artikuluan dago jasota. Hona hemen zer dioen:

«garraioko, banaketako edo sistemaren eragiketako jarduera bat edo batzuk egiten dituzten merkataritza-sozietateek helburu sozial bakarra izan behar dute: jarduera horiek garatzea; beraz, ezin izango dute ekoizpeneko nahiz merkaturatzeko jarduerarik edo energia kargatzeko zerbitzuen jarduerarik garatu».

Tokiko esparrura etorrira, Tolosako Udalak banaketa-jarduera zuzenean egiten zuenez, 2001ean, Tolargi, SL merkataritza-sozietatea sortu behar izan zuen, energiaren banaketa-jarduera egingo dutenak merkataritza-sozietateak edo sozietate kooperatiboak izan behar dutela dioen lege-eskakizuna bete ahal izateko. Jarduerak bereizteko betebeharra betetzeko, Tolargi, SLk ezin du, beraz, energia elektriko merkaturatzeko jarduerarik egin. Hala, CIDE HCekin sinatutako agentzia-kontratuaren 4. azalpenak honako hau dio: «la distribuidora Tolargi, S.L., realizó la transferencia a favor de CIDE HC de sus clientes que a fecha 1de julio de 2009 no hubieran optado por otra comercializadora, de conformidad con lo previsto en el Real Decreto 485/2009, de 3 de abril».



Tolargi, SLk CIDE elkartean parte hartzeak lagundu egiten du ulertzen zergatik ari den orain Udala CHC COR eta CIDE HC merkaturatzaileen alde zerbitzuak eskaintzen.

Gauzak horrela, zalantzarik gabe, nolabaiteko lotura afektibo historikoa dago kontsumitzaileen eta Udalaren artean energia elektrikoaren hornidurari dagokionez; are gehiago, aintzat hartuta Udalak arestian aipatutako agentzia-kontratuak eta zerbitzuak emateko kontratuak sinatu dituela, eta kontratu horien arabera, udalerrian bertan kokatutako kontsumitzaileek egindako eskaerei erantzuten jarraitu dugu.

Hala ere, nabarmendu behar da, Udalak eskaintzen duen aurrez aurreko eta telefonozko arreta CIDE HC eta CHC COREn bezeroei bakarrik dagoela lotuta, eta ez herritar guztiei. Hala, Sektore Elektroari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 44.1.c) artikulua arabera, kontsumitzaileen oinarrizko eskubidea da haien hornitzailea aske hautatzea energia merkaturatzen duten enpresen bidez (horien artean daude CIDE CH eta CHC COR. Oro har, kontsumitzaileek enpresa merkaturatzaileekin sinatutako kontratuak, gehienez urtebeteko iraupena izaten dute, eta iraupen hori isilbidez luza daiteke, urtebeteka, eta kontsumitzaileak kontratua suntsi dezake, hura amaitu baino gutxienez hamabost egun lehenago nahi hori jakinarazita; hori guztia 2002ko abenduaren 27ko 1435/2002 Errege Dekretuaren 4. artikulua arabera. Errege Dekretu horrek arautzen ditu energia erosteko eta behe tentsioko sareetara sarbidea izateko kontratuen oinarrizko baldintzak.

Hala beraz, gogorarazi behar da badirela Udalak eskaintzen duen arreta-zerbitzua jasotzen ez duten herritarrek; hain zuzen, elektrizitatearen hornidura CIDE HC eta CHC COR enprekin kontratatu beharrean, beste enpresa batzuekin modu askean kontratatuta dutenak.

Beraz, ikuspegi juridiko hertsitik begiratuta, honako arrisku hau dago: Udala zerbitzuak ematen ari da, eskusiboki, bi merkataritza-sozietate pribaturentzat.

Horretan oinarrituta, utzi egin behar zaio aipatutako zerbitzu horiek emateari.

Beraz, bi kontratuak hausteko aukerak aztertuko ditut jarraian:

Zerbitzuak emateko kontratua, CHC COREkin sinatua:

Honako aukera hauek daude:

- Kontratua suntsiaraztea, elkarren arteko adostasunez, 10. klausularen a) idatz-zatiaren arabera.*

Horretarako, CHC COR enpresari komunikazio bat bidali behar zaio posta elektronikoz, edo gutun ziurtatu bat, eskatuz, adieraz dezala ados dagoela kontratua, dagokion sinaduraren bidez, elkarren arteko adostasunez suntsiaraztearekin. Kontuan hartuta CHC COR enpresak kudeaketa eredu zentralizatu edo contact center motako eredura eskualdatu nahi duela kudeaketa,

- Kontratua alde bakarretik suntsiaraztea 11. klausularen arabera, bi hilabeteko epean akordiorik lortu ez delako.*



Negoiaziorako epea akordiorik lortu gabe amaitu ondoren, Udalak ere zilegitasun berdina izango luke kontratua suntsiarazteko. Horretarako, komunikazio bat bidali beharko luke posta elektronikoz, edo gutun ziurtatu bat, eta bertan adierazi kontratua suntsiarazi nahi duela.

CIDE Energía, SArekin sinatutako agentzia-kontratua:

Lehen adierazitako moduan, agentzia-kontratuak indarrean jarraitzen du, eta CHC COREkin zerbitzuak emateko sinatutako kontratuarekin ez bezala, CIDE HC enpresa merkaturatzaileak ez du adierazi agentzia-kontratua aldatu edo suntsiarazi nahi duenik. Udala, hala ere, eska dezake kontratua suntsiaraztea, honela:

- Kontratua alde bakarretik suntsitzea, 3.3 klausularen eta Agentzia-kontratuei buruzko 1992ko maiatzaren 27ko 12/1992 Legearen 25. artikulua araber.*

Kontratuaren 3.3 klausulak ezartzen du Legeak aurreikusitako moduan azkenduko dela kontratua. Hala, Agentzia-kontratuei buruzko 25. artikulua araber, «el contrato de agencia de duración indefinida, se extinguirá por la denuncia unilateral de cualquiera de las partes mediante preaviso por escrito». 25. artikulua 5. atalak honako hau dio:

«Para la determinación del plazo de preaviso de los contratos por tiempo determinado que se hubieren transformado por ministerio de la ley en contratos de duración indefinida, se computará la duración que hubiera tenido el contrato por tiempo determinado, añadiendo a la misma el tiempo transcurrido desde que se produjo la transformación en contrato de duración indefinida».

Kasu honetan, agentzia-kontratua 2016ko urtarrilaren 1ean sinatua da, eta orain artean gauzatu da. Hala, eta 25. artikulua 2. atala aplikatuta, sei urte osoko indarraldia igaro da (2016-2021), eta beraz, aurretiaz jakinarazteko epeak sei hilabetekoa izan behar luke; hain zuzen, Legeak aurreikusten duen luzeena. Eragileak, Udalak, kontratua alde bakarretik suntsiarazteak ez lioke CIDE HCri kalte-galerengatik ordaina jasotzeko eskubiderik emango, betiere, aurrez jakinaraztearen betebeharra betetzen bada behintzat.

- Kontratua aldeak ados jarrita suntsiaraztea, Kontratuaren 7.1.b klausularen araber.*

Horretarako, komunikazio bat bidali beharko litzaioke CIDE HCri, kontratua bertan behera uztearekin ados dagoela adieraz dezan, dagokion sinaduraren bidez. Kasu honetan, ez dago sei hilabete aurretik abisatu beharrik, eta kontratua suntsiarazitzat hartuko litzateke CIDE HCk adierazitakoan ados dagoela kontratua suntsiaraztearekin.

Gauzak horrela, Udalak aipatutako erakundeei bidali zizkien sinatutako kontratuak adostasunez amaitzeko kontratuak. Ondoren, sarrera erregistro bidez, 2022ko irailaren 13an, enpresak aipatutako kontratuak amaitzeko kontratuen eredu bana aurkeztu dute, udalak aurkeztutako berdina, baina klausula hauek erantsiz:



Klausula hauek ondorengoak dira:

1) Agentzi kontratuan klausula berri hauek sartu dituzte:

Hirugarrena: Konpetentzia ez egitearena.

Laugarrena: Datu Babesari buruzkoak, Softwarra bueltatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Bostgarrena: Konfidentziasunari buruzkoa.

2)- Zerbitzua eskeintzeko kontratuari buruz, ondorengoak:

Hirugarrena: Datu babesari buruzkoak, software bueltatzeari buruzkoa, hain zuzen.

Laugarrena: Konfidentziasunari buruzkoa.

*Udalak uste du enpresek sartutako klausula berriak arrazoizkoak direla, eta bere oneritzia azaltzen du kontratuak amaitutzat emateko bi aldeek hala adostuta.
(...)"*

Hala, behean jasotzen den Proposamena helarazi dio udal teknikari juridikoak..

3.- FISKALIZAZIO TXOSTENA

2022ko irailaren 20an, Jarduneko Kontuhartzaileak egindako fiskalizazio-txostenak honakoa ondorioztatu du:

“C) ONDORIOAK

1.- Txosten juridikoen arabera, agentzia eta zerbitzuak emateko kontratuak suntsiarazi egin behar dira, bertan egiten diren jardueratarako udalak gaikuntza juridikorik ez duelako eta jarduerak ezin dituelako egin eskusibotasunez eta lehiarik gabe.

2.- Kontratuak suntsiarazten badira, udalak komertzializazio jardueran duen 4.000,00 euro inguruko mozkin marjina eta aurrez aurreko arreta zerbitzua galduko lituzke.”

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2022ko irailaren 21ean egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva.

Abstentzioak: Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Honako kontratu hauek adostasunez suntsiaraztea:

-2016ko urtarrilaren 1ean CIDE HCENERGÍA, SArekin ("CIDE HC") sinatutako agentzia kontratua, ondorengo xedea zuena: Tolosako udalerrian Udalak energia elektrikoa merkaturatzeko jarduera sustatzeko zerbitzuak ematea.

-2016ko otsailaren 29an Tolosako Udalak eta CHC COR COMERCIALIZADORA DE REFERENCIA, SL enpresak ("CHC COR") merkatu arautuko bezeroak energia elektrikoarekin hornitzeari lotutako zerbitzu-kontratua.

BIGARRENA.- Suntsiarazpen-kontratuak sinatzea CIDE HCENERGIA, S.A.U eta COMECIALIZADOR DE REFERENCIA ENERGÉTICA S.L.U. enpresekin., ondorengo terminoetan:

«AGENTZIA-KONTRATUA AMAITZEKO AKORDIOA, TOLOSAKO UDALAREN ETA CIDE HCENERGÍA, SAU-REN ARTEKOA

Alde batetik:

TOLOSAKO UDALA (aurrerantzean, «Agentea»), IFZ P2007600-F, eta helbidea Plaza Zaharra, Tolosa, Gipuzkoa duena, eta haren izenean eta hura ordezkatzuz, Olatz Peon Ormazabal, 2022ko irailaren 29ko osoko bilkuraren aktan emandako eskuduntzez baliatuta.

Eta bestetik:

CIDE HCENERGIA, SAU (aurrerantzean «CIDE HC») IFZ A-74255282, eta helbide soziala Calle Poeta Joan Maragall (lehen Capitán Haya), nº 1, 3º, Madrid duena, eta haren izenean eta hura ordezkatzuz, María de la O Martínez Herrera, Madrilgo Ricardo Ferrer Giménez notario jaunak 2021eko uztailaren 30ean, 1.507 protokolo-zenbakiarekin, egiletsitako eskrituran emandako eskuduntzez baliatuta.



Bi alderdiak behar bezala ordezkaturata agertu dira, eta «Alderdiak» esango diegu, bie. Eta horiek horrela,

ADIERAZTEN DUTE

2016ko urtarrilaren 1ean, Alderdiak agentzia-kontratu bat sinatu zutela (aurrerantzean, «Kontratua»), eta kontratu haren arabera, Agenteak zenbait merkataritza-zerbitzu eskaini behar zizkiola CIDE HCri.

Alderdiak adostu dutela, Kontratuaren 7.1.b) klausularen arabera, Kontratua, bi aldeek adostuta, suntsiaraztea, horrek Alderdiei inolako erantzukizunik ekarri gabe.

Aipatutakoaren arabera, Alderdiak kontratua amaitzeko akordioa hau sinatzen dutela (aurrerantzean, «Akordioa»), eta honako hauek direla akordio honen

ESTIPULAZIOAK

Xedea

Akordio honen xedea Kontratua, alderdiak ados jarrita, suntsiaraztea da.

Indarrean jartzea eta eraginkortasuna

Akordioa sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko irailaren 29tik aurrera izango ditu ondorioak.

Lehiarik ez.

Kontratuaren 2.3 klausulan ezarritakoa betez, ez Agenteak, ez eta haren taldeko sozietate edo entitateek ere ezingo dute, Kontratua amaitu eta hurrengo urtean, CIDE HCren bezeroengana modu aktiboan jo energia elektrikoaren salmenta eskaintzera.

Era berean, Agenteak ez du abiaraziko energia elektrikoa merkaturatzeko jarduerarik aipatutako urtebeteko epe horretan, eta bere Jarduera Eremuan (eremu hori Kontratuan zehaztuta dagoen moduan aintzat hartuta), ez zuzenean, ez zeharka (kasu honetan, bere taldeko sozietate edo entitateen bidez).

Kontratuaren 2.5 klausulan ezarritakoa ikusita, alderdiak adostu dute, baldin eta aurreko bi paragrafoetan aipatutako urtebeteko epe horretan, Agenteak utzi egiten badio CIDE SERVICIOS COMERCIALES DE ENERGÍA, SLren zuzeneko edo zeharkako bazkide izateari, aurreko paragrafoetan lehiarik ez egiteari buruz aipatutako betebeharrak horiek luzatu egingo direla, bazkide izaera galtzen den datatik zenbatzen hasita, hurrengo hamabi (12) hilabeteetarako.

Agenteak klausula honetan bere gain hartzen dituen betebeharren bat ez betetzeak, Kontratuaren 2.4 klausulan ezarritako ondorioak ekarriko ditu, eta ondorio horietarako, indarrean jarraituko du klausula horrek Kontratuak amaitu eta gero ere.

Klausula honen ondorioetarako, Agentearen talde berekotzat hartuko dira Agentea, zuzenean edo zeharka, erakunde nagusi duten sozietate edo entitate guztiak (Merkataritzako Kodearen 42. artikulua ezarritako nagusitasun kontzeptua aintzat hartuta).



Datuen babesa. Entregatzekoak. Softwarea

Agentearen eta CHCren artean indarrean dago Tratamendu Eragilearen Kontratua, Agentea tratamendu-eragile eta CHC tratamenduaren arduradun ezarrita, eta Kontratu horren 7.e eta 14. klausulen arabera, gaur suntsiarazpenaren xede diren zerbitzuak eskaintzeari lotuta, honako betebeharrak dituen Agenteari:

CHCren bezeroen edo bezero izan litezkeen datu pertsonalak dituen jatorrizko kontratu-agiri oro itzultzea, gehienez, akordio hau sinatzen den egunetik, gehienez, 5 egun naturaleko epean, CHCren egoitza sozialean.

Izaera pertsonaleko datuak dituen informazio eta dokumentazio guztia ezabatzea eta/edo suntsitzea, jatorrizko kontratu-dokumentazioarekin bat ez badator, formatua edo euskarria edozein dela ere (orientagarria eta ez mugatua: posta elektronikoa, papera, etab.). Betebeharrak hori behar bezala gauzatu beharko da akordio hau sinatzen den egunetik 5 egun naturaletan, ez badago, behintzat, datu pertsonalak gordetzea eskatzen duen arau juridikoren bat. Hala balitz, berehala eman beharko zaio CHCri horren berri, eta arau horren eraginpeko datuak zein diren zehatz adierazi, eta datu horiek blokeatu egin beharko dira.

Zerbitzua eskaintzeko eskura izandako datu pertsonalak, lehen aipaturakoak ez direnak, ezabatzea eta/edo suntsitzea, edozein dela ere haien formatua edo euskarria; baita datu horien kopia guztiak ere. Ez da ezabatu, aldatu edo kendu behar CHCk zerbitzua eskaintzeko jarritako softwareetan dagoen informazioa. Betebeharrak hori behar bezala gauzatu beharko da akordio hau sinatzen den egunetik 5 egun naturaletan, ez badago, behintzat, datu pertsonalak gordetzea eskatzen duen arau juridikoren bat. Hala balitz, berehala eman beharko zaio CHCri horren berri, eta arau horren eraginpeko datuak zein diren zehatz adierazi, eta datu horiek blokeatu egin beharko dira.

CHCk zerbitzua emateko gaitutako softwarea, akordio hau sinatzen denean, berehala desinstalatzeko. Software propioetan informazioa edukiz gero, datu horiek behar bezala kendu behar dira, betiere, informazio hori CHCren beraren softwareetan gordeta badago. Bestela, CHCren softwareetara eraman behar dira berehala, desinstalatu aurretik.

Suntsiarazpen-akordio honetako datu pertsonalak, jatorrizko Kontratukoak, eta zerbitzuak eskaintzeko helburuarekin alderdiek izan duten harremanean trukaturakoak gorde egingo dira, etor litezkeen erantzukizunak preskribatzen diren arte.

Alderdien ordezkariak, indarrean den legeriak ezarritako moduan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute; baita datuen tratamenduari mugak jarri edo aurka egin ere, eta datuak transferitzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi behar da:

Agentea: dbdelegatua@tolosa.eus

CHC: dpd@chcenergia.es

Ordezkariek erreklamazioa jarri ahal izango dute kontrolerako agintaritzaren eskudunaren aurrean.



Konfidentzialtasuna

Alderdiek konfidentzialtasun zorrotzez jokatu behar dute kontratuaren indarraldian eta arrazoa Kontratua izanda eskuratutako informazio, datu eta ezagutza ororekin, bai eta Akordio honen xede den suntsiarazpenaren baldintzei dagokienez ere. Halaber, informazio hori ez dute komertzialki erabili edo ustiatuko haien edo hirugarrenen onurarako (honako hau da salbuespena: CIDE HCren bezeroei buruzko informazioa, Agenteak kudeatu izan duena, eta hemendik aurrera CIDE HCk ustiatuko duena).

Alderdiek, aurreko paragrafoaren arabera, informaziorik ez emateko duten betebeharra ez da aplikagarria izango honako arrazoi hauek badira tartean:

- a) Lege-betebehar bat, epailearen edo administrazioaren agindu bat betetzea;*
- b) Akordio honetan sortutako eskubideak eta betebeharrak betetzea eskatzea edo ahalbidetzea; edo*
- c) Alderdien aholkulari eta auditoreei informazioa ematea, baldin eta haien lege-estatutuak edo itunak behartzen baditu eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzera.*

Alderdiek haien langile eta gainerako kolaboratzaileei eskatu beharko diete betetzeko hemen araututako konfidentzialtasun-betebehar hori.

Akzioei uko egitea

Alderdiek adierazten dute, akordio hau sinatzen den egunean, eta kontratuaren babesean sinatutako merkataritza-harremanari dagokionez, ez dutela erreklamatu beharreko zenbatekorik, eta, beraz, uko egiten diotela kontratua betearaztearen ondorioz sor daitezkeen akzioei.

Lege aplikagarria, eta gatazkak ebaztea

Akordio hau Espainiako legeen arabera interpretatuko da.

Alderdiek erabaki dute Akordio hau betearaztearen edo interpretaztearen ondoriozko auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio oro, edo Akordio honekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen oro, zuzenbidezko arbitrajearen bidez ebatziko dela Madrilgo Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko Arbitraje Gortearen aurrean, hark baitu esleitua arbitroen izendapena, haren erregelamenduaren arabera. Era berean, alderdiek berariaz jasoarazi dute horretarako ematen den arbitraje-laudoa betetzeko konpromisoa, hargatik eragotzi gabe aplika daitezkeen araudiaren arabera laudo horren aurka jar daitezkeen errekurtsioak.

Eta ados daudela adierazteko, Alderdiek, Akordio honen bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.

ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA AMAITZEKO AKORDIOA, TOLOSAKO UDALAREN ETA COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA ENERGÉTICO, SLU-REN ARTEKOA

BILDURIK

Alde batetik:



TOLOSAKO UDALA (aurrerantzean, «ZERBITZU-EMAILEA»), IFZ P2007600-F, eta helbidea Plaza Zaharra, Tolosa, Gipuzkoa duena, eta haren izenean eta hura ordezkatzuz, Olatz Peon Ormazabal, 2022ko irailaren 29ko osoko bilkuraren aktan emandako eskuduntzez baliatuta.

Eta bestetik:

COMERCIALIZADOR DE REFERENCIA ENERGÉTICO, SLU (aurrerantzean «CRE») IFK B86986684, eta helbide soziala Calle Poeta Joan Maragall (lehen Capitán Haya), nº 1, 3º Sur, Madrid duena, eta haren izenean eta hura ordezkatzuz, María de la O Martínez Herrera, Madrilgo Ricardo Ferrer Giménez notario jaunak 2021eko uztailaren 30ean, 1.507 protokolo-zenbakiarekin, egiletsitako eskrituran emandako eskuduntzez baliatuta. Bi alderdiak behar bezala ordezkatura agertu dira, eta «Alderdiak» esango diegu, bie. Eta horiek horrela,

ADIERAZTEN DUTE

2016ko otsailaren 29an, Alderdiak zerbitzuak eskaintzeko kontratu bat sinatu zutela (aurrerantzean, «Kontratua»), eta Kontratu haren arabera, ZERBITZU-EMAILEAK zenbait merkataritza-zerbitzu eskaini behar zizkiola CREri.

Alderdiak adostu dutela, Kontratuaren 10.b) klausularen arabera, Kontratua, bi aldeek adostuta, suntsiaraztea, horrek Alderdiei inolako erantzukizunik ekarri gabe.

Aipatutakoaren arabera, Alderdiak kontratua amaitzeko akordioa hau sinatzen dutela (aurrerantzean, «Akordioa»), eta honako hauek direla akordio honen

ESTIPULAZIOAK

- **Xedea**

Akordio honen xedea Kontratua, alderdiak ados jarrita, suntsiaraztea da.

- **Indarrean jartzea eta eraginkortasuna**

Akordioa sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko irailaren 29tik aurrera izango ditu ondorioak.

- **Datuen babesa. Entregatzekoak. Softwarea**

Alderdiak berriaz adierazten dute suntsiarazita eta amaituta dagoela kontratuaren arabera gauzatutako datu-tratamenduaren enkargua.

Suntsiaraztearen xede den zerbitzu-emateari dagokionez, honako betebeharrak hauek ezartzen zaizkio Agenteari:

CREren bezeroen edo bezero izan litezkeen datu pertsonalak dituen jatorrizko kontratu-agiri oro itzultzea, gehienez, akordio hau sinatzen den egunetik, gehienez, 5 egun naturaleko epean, CREren egoitza sozialean.



- *Izaera pertsonaleko datuak dituen informazio eta dokumentazio guztia ezabatzea eta/edo suntsitzea, jatorrizko kontratu-dokumentazioarekin bat ez badator, formatua edo euskarria edozein dela ere (orientagarria eta ez mugatua: posta elektronikoa, papera, etab.). Betebehar hori behar bezala gauzatu beharko da akordio hau sinatzen den egunetik 5 egun naturaletan, ez badago, behintzat, datu pertsonalak gordetzea eskatzen duen arau juridikoren bat. Hala balitz, berehala eman beharko zaio CREri horren berri, eta arau horren eraginpeko datuak zein diren zehatz adierazi, eta datu horiek blokeatu egin beharko dira.*
- *Zerbitzua eskaintzeko eskura izandako datu pertsonalak, lehen aipatutakoak ez direnak, ezabatzea eta/edo suntsitzea, edozein dela ere haien formatua edo euskarria; baita datu horien kopia guztiak ere. Ez da ezabatu, aldatu edo kendu behar CREk zerbitzua eskaintzeko jarritako softwareetan dagoen informazioa. Betebehar hori behar bezala gauzatu beharko da akordio hau sinatzen den egunetik 5 egun naturaletan, ez badago, behintzat, datu pertsonalak gordetzea eskatzen duen arau juridikoren bat. Hala balitz, berehala eman beharko zaio CREri horren berri, eta arau horren eraginpeko datuak zein diren zehatz adierazi, eta datu horiek blokeatu egin beharko dira.*
- *CREk zerbitzua emateko gaitutako softwarea, akordio hau sinatzen denean, berehala desinstalatzea. Software propioetan informazioa edukiz gero, datu horiek behar bezala kendu behar dira, betiere, informazio hori CREren beraren softwareetan gordeta badago. Bestela, CREren softwareetara eraman behar dira berehala, desinstalatu aurretik.*

Suntsiarazpen-akordio honetako datu pertsonalak, jatorrizko Kontratukoak, eta zerbitzuak eskaintzeko helburuarekin alderdiek izan duten harremanean trukaturakoak gorde egingo dira, etor litezkeen erantzukizunak preskribatzen diren arte.

Alderdien ordezkariak, indarrean den legeriak ezarritako moduan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute; baita datuen tratamenduari mugak jarri edo aurka egin ere, eta datuak transferitzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi behar da:

Agentea: dbdelegatua@tolosa.eus

CRE: dpd@coreenergetico.es

Ordezkariek erreklamazioa jarri ahal izango dute kontrolerako agintaritzaren eskudunaren aurrean.

- **Konfidentzialtasuna**

Alderdiek konfidentzialtasun zorrotzez jokatu behar dute kontratuaren indarraldian eta arrazoia Kontratua izanda eskuratutako informazio, datu eta ezagutza ororekin, bai eta Akordio honen xede den suntsiarazpenaren baldintzei dagokienez ere. Halaber, informazio hori ez dute komertzialki erabili edo ustiatuko haien edo hirugarrenen onurarako (honako hau da salbuespena: CREren bezeroei buruzko informazioa, ZERBITZU-EMAILEAK kudeatu izan duena, eta hemendik aurrera CREk ustiatuko duena).

Alderdiek, aurreko paragrafoaren arabera, informaziorik ez emateko duten betebeharra ez da aplikagarria izango honako arrazoi hauek badira tartean:



- a) *Lege-betebehar bat, epailearen edo administrazioaren agindu bat betetzea;*
- b) *Akordio honetan sortutako eskubideak eta betebeharrak betetzea eskatzea edo ahalbidetzea; edo*
- c) *Alderdien aholkulari eta auditoreei informazioa ematea, baldin eta haien lege-estatutuak edo itunak behartzen baditu eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzera.*

Alderdiek haien langile eta gainerako kolaboratzaileei eskatu beharko diete betetzeko hemen araututako konfidentzialtasun-betebehar hori.

- **Akzioei uko egitea**

Alderdiek adierazten dute, akordio hau sinatzen den egunean, eta kontratuaren babesean sinatutako merkataritza-harremanari dagokionez, ez dutela erreklamatu beharreko zenbatekorik, eta, beraz, uko egiten diotela kontratua betearaztearen ondorioz sor daitezkeen akzioei.

- **Lege aplikagarria, eta gatazkak ebaztea**

Akordio hau Espainiako legeen arabera interpretatuko da.

Alderdiek erabaki dute Akordio hau betearaztearen edo interpretaztearen ondoriozko auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio oro, edo Akordio honekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen oro, zuzenbidezko arbitrajearen bidez ebatziko dela Madrilgo Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko Arbitraje Gortearen aurrean, hark baitu esleitua arbitroen izendapena, haren erregelamenduaren arabera. Era berean, alderdiek berariaz jasoarazi dute horretarako ematen den arbitraje-laudoa betetzeko konpromisoa, hargatik eragotzi gabe aplika daitezkeen araudiaren arabera laudo horren aurka jar daitezkeen errekurtsioak.

Eta ados daudela adierazteko, Alderdiek, Akordio honen bi ale sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.»

HIRUGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea aipatutako kontratuak eta akordio hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin (Ander Figuerido Zubiriak ordezkaturik), Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.



Beraz, udalbatzak aho batez onartu du CIDE CHC eta CIDE COR enpresekin, elkarren arteko adostasunez, kontratuak suntsiaraztea.

9. TOLOSAKO UDALERRIAN JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK ERABERRITZEKO DIRULAGUNTZEN BIDEZ ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzako kideek gai honen berri izan dute:

Udalbatzarrak, 2022ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion **Tolosako udalerrian jenderik gabeko etxebizitzak eraberritzeko dirulaguntzen bidez alokairu soziala bultzatzeko ordenantza arautzaileari.**

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

- Gipuzkoako Aldizari Ofizialean 2022ko uztailaren 18an, 1 zenbakian.
- Web orrian eta Gardentasun atarian, 2022ko uztailaren 18tik abuztuaren 31ra arte.
- Udaletxeko Iragarki taulan, 2022ko uztailaren 19tik abuztuaren 31ra arte.

Informazio publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betikoz onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

10. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA:

- **2022/10 KREDITU ALDAKETA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

Udalbatzarkideei kreditu gehigarrien modalitateko 2022/10 kreditu aldaketaren berri eman zaie. 2022/2351. Alkatetza Dekretuak honela dio:



ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000010-00.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	25.414,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	20.000,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	275.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		320.414,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	320.414,00
GUZTIRA		320.414,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2022ko irailaren 15a

Alkatea

Idazkaria



Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- 2022/11 KREDITU ALDAKETA, KREDITU GAIKUNTZAREN MODALITATEAN.

Udalbatzarkideei kreditu gaikuntzaren modalitateko 2022/11 kreditu aldaketaren berri eman zaie. 2022/2349. Alkatetza Dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2022-KALD-000011-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Aruak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako foru aruak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
1	PERTSONAL GASTUAK	61.011,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		61.011,00



SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	61.011,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		61.011,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2022ko irailaren 15a

Alkatea

Idazkaria

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 21:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0009-2022-09-29 ohiko osoko bilkura akta/2022-09-29 ohiko osoko